



ARGIA



VILLABONAKO 'BEHAR ZANA' ELKARTEAK 75 URTE

Pilota hotsak biziarazten

26-31. orriak



**Bru, Lasserre
eta Echaniz, Ipar
Euskal Herriko
diputatuak**

6 | POLITIKA



**Euskal kultura
zinematografikoaren
historia**

43 | JOSU MARTINEZ



LARRUN #275
**Oinarrizko errenta
unibertsala**



Imajinatu duzu
sare sozial bat **zure**
datuak jaten dituen
muskerrik gabe?

Meta-negozia
egiteko asmo barik?

Guztiona den sare
sozial bat, **librea,**
euskalduna,
deszentralizatua?

Utopia klik
batekin hasten da.



Sortu kontua
mastodon.eus
edo **mastodon.jalgi.eus** helbideetan.

Jarraitu  **ARGIA** sarerik askeenean.

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO**

Iritziak

- 21 | DAVID BOU
- 22 | ANE ABLANEDO
- 23 | ZIGOR ETXEBURUA
- 23 | CASTILLO SUAREZ
- 24 | IRATI TOBAR

Finkoak

- 36 | DENBORAREN MAKINA
- 37 | ARGIA KOMUNITATEA
- 38 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: ZELAI AMENABARRO
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


40 | **JOSU MARTINEZ**

elkarrizketatu du Miel A. Elustondok. Euskal zinemaren historiak mintzatu da "Irudiz eta euskaraz" liburuaren egilea eta euskal zinemaren sorreraz tesia egin zuen EHUKo irakaslea. 2005eko mugarrira azaldu du, euskaraz zinematik ez egiteko egon den ikuspegi motza ere bai, eta egin zirenak galtzeko dagoen arriskua...

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Libanon minbizia baduzu, estatuak ez zaitu artatuko
Pello Zubiria

16 | PERTSONAIA | ANDONI ITURRIOZ

"Egiak eta euskal kulturak gidatu dute nire laguntza"
Miel A. Elustondo

26 | KIROLA | BEHAR ZANAK 75 URTE

Herrietako taldeen esku dago pilotaren geroa
Estitxu Eizagirre

32 | HEZKUNTZA

EAEko DBHko ikastetxe batzuek jardunaldi jarraia eskatzen dute
Estitxu Eizagirre

36 | GURASO LGTB-AK

"Estatuak ez luke arautu behar familiak nolakoa izan behar duen"
June Fernandez

44 | KULTURA | BORDERLINE FABRIKA

"Arteetatik komunitate arteko nahasketaz gozatzeko gunea"
Gari Garaialde / Laia aldizkaria

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria
Onintza Irureta

Erredakzioa
Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Maddi Viana, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte

Salmenta
Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefona
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egileta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

A close-up portrait of a young boy with dark skin and short black hair, looking slightly to the right. He is wearing a yellow and orange patterned shirt. The background is a blurred desert landscape with a thatched hut and dry trees under a clear sky.

Demonioak gauez dabiltza

“Boko Haram iluntzean iristen da beti. Aurkitzen bazaituzte, lepoa mozten dizute. Hori egitea gustatzen zaie”. 17 urteko Djibrine Mbodou txadarra Estatu Islamikoarekin lotutako talde armatuak bahitu zuen. Haiekin bat egiteari uko egin ondoren, urtebete eta erdi pasata ihes egitea lortu zuen. Orain bere bizitza berregiten saiatzen ari da. Bere lagun eta auzokide batzuek Boko Haramekoekin batu ziren. Armak hartu eta Nigeriako indarren aurka borrokatu ziren eta meskitetan, eskoletan edo merkatuetan atentatuak egin zituzten. Mbodouk ez die errurik botatzen. Haiekin joaten ez baziren, hil egingo zituzten, beraz, ez zuten aukerarik. Batzuk beldurragatik elkartu ziren, beste batzuk interesagatik. “Boko Haramekin bazaude, ez duzu janariagatik ordaintzen, ez duzu goserik pasatzen, harrapaketak egin ditzakezu eta emakumeekin ezkondu”. Jihadismoa aurrera doa Afrikako gerriko osoan, Saheletik Txad Lakura eta Somaliara. Eredu ahaztuetan gertatzen da, pobreak, estatu hutsal eta ustela dutenak, zeinentzat sarri terrorismoaren aurkako borroka herritarrez abusatzen jarraitzeko beste aitzakia bat baino ez den.



Frantziako Legebiltzarrerako hauteskunderen bigarren itzuliari so



Legebiltzarrean zuen gehiengo osoa galdu du Emmanuel Macronek

5 77 diputatuetak 351 lorturik, Frantziako Legebiltzarreko gehiengo osoa lortu zuen 2017an Emmanuel Macron presidenteak, etorriko ziren bost urteetan nahi zuen politika bideratzeko aukera eskuratuz. Hori ez errepikatzea zuen xede NUPES ezkerreko alderdien arteko koalizioak. Helburu hori lortu du: 245 diputatu ditu Ensemble! izeneko Macronen aldeko hautagaitzak -289 behar dira gehiengo osoa lortzeko-. Hala eta guztiz ere, eskuineko Errepublikarrak alderdiak 61 aulki lorturik eta eskuinean kokatzen diren beste 11 diputatu izanik, pentsatu dezakegu legeak bozkatu ahal izateko gehiengo osatzen lortuko duela Macronek.

Eskuineko diputatuen botoa beharrezko duela, aurreikusi daiteke are eskuinerago tiratuko duela berea Macronek. Parean, ezkerre izanen du oposizioa indar nagusi, azken bost urteetan baino anitzez pisu gehiagorekin gainera:

131 diputatu lortu ditu NUPESek eta ezkerrean kokatzen dira beste 22 hautetsi ere. 2017an ezkerre ez zen aurten bezala baturik aurkeztu eta 45 diputatu lortu zituen Alderdi Sozialistak, 17, berriz, ezker muturreko Jean-Luc Melenchon Frantzia Intsumisioa alderdiak.

Gehiengo lortzea zuen NUPESek amets, Melenchon lehen ministro izendatu eta Macronen politika liberal eta eskuindarrari bidea mozteko Parlamentutik. Ez du lortu eta ezkerreko alderdien arteko batasun gazte eta berri hau iraunaraztea eta sendoaraztea izanen du ondoko egun eta urteetan erronka nagusi.


Ezberdintasunak alde batera utzi eta adostasunak lehenestea lortu zuten lehendakartzako hauteskunderen bihar-munean Alderdi Sozialistak, Europe Ecologie alderdi ekologistak, Alderdi Komunistak eta Frantzia Intsumisioak. 2027ko presidentzialeari begira, batasuna

iraunaraztea dute orain ardura, hemen-dik bost urtera eskuin muturrari bidea mozteko gisan.

Abstentzioa da bozketa hauetako garaile nagusia: %53,7 ez da joan bozkatzera eta beste %3,5k zuri edo baliogabeko bozka-papera jarri du.

ESKUIN MUTURRA 8TIK 89RA

Datu kezkarria da eskuin muturreko Batasun Nazionalak lorturiko emaitza: 89 aulki lortu ditu, 2017an baino 81 gehiago. Bozketaz bozketa indartuz doa Marine Le Penen alderdia. Bi itzulien artean Macronen aldekoek ia hein berean jarri dituzte ezker muturra eta eskuin muturra; eta presidentzialetan beharrezko zuen *fronte errepublikarra* aldi honetan ez du bultzatu; alderantziz, ezker muturrak zekarren "arriskua" eta "desordena" aipatu izan ditu. Frantziako Gobernuak badauka bere ardura eskuin muturraren gorakadan. ●



Parte-hartzea: % 46,3

- NUPES (Ezkerreko batasuna): 131
- Ezkerre, bestelakoak: 22
- Autonomistak, independentistak: 10
- Ensemble (Macronen koalizioa): 245
- Zentroa, bestelakoak: 4
- UDI zentristak: 3
- Errepublikarrak: 61
- Eskuina, bestelakoak: 11
- Bestelakoak: 1
- RN eskuin muturra: 89



LA RÉPUBLIQUE DES PYRÉNÉES

Ipar Euskal Herritik Bru, Lasserre eta Echaniz

Emmanuel Macronen aldeko Ensemble koalizioko bi diputatu –Vincent Bru eta Florence Lasserre–, eta oposizioako lehen indarra izanen den NUPES ezkerreko koaliziotik bat –Iñaki Echaniz–. Horra Ipar Euskal Herri mailan zeintzuek duten irabazi ekainaren 19an buruturiko Frantziako Legebiltzarrerako hauteskunde bigarren itzulia.

Hori horrela, azken bost urteetan bezala segituko dute kargu horretan seigarren hautesbarrutiko Bruk –Hendaia eta Miarritze arteko Lapurdiko herriak barnebiltzen dituen eremuko diputatuak– eta bosgarreneko Lasserrek –Angelu, Baiona eta inguruko herrietakoak–. Alde handiarekin atera da garaile Bru, botoen %60,2 eskuraturik, eta gauza bera Lasserrentzat, %54,4 eginik. Lapurdiko hautesleek ez dute beraz boto bidez zigortu Macronen Gobernua, eta politika berarekin aitzinatu nahia adierazi du gehiengoak. Baina orokorrean, bozkatu duten Ipar Euskal Herriko hautesleen gehiengoak du Macronen aldeko koalizioa babestu. Hau da, Echanizek irabazi badu ere lehia, Baxenabarreko eta Zuberoako datuei begiratuz gero, gehiengoa Annick Troundayen (Ensemble) alde kokatu zen Ipar Euskal Herrian –Biarnoko botoek egin dute NUPES dela nagusitu–. Bien arteko lehia uste baino tinkoagoa izan da: 89 botoen aldearekin gailendu da Echaniz. Oloroeko (Biarnoa) kontseilari sozialistak hartu dio aulkia hogeitaz diputatu izandako Jean Lassalleri –aldi honetan ez da aurkeztu eta lekukoa Julien anaiari pasa dio–. Euskal Irratiei egin lehen adierazpenetan azpimarratu nahi izan du ospitale publikoaren defentsan ariko dela lanean –Oloroekoak pairatzen du Macronen austeritate politika, hainbat zerbitzu eta lanposturen desagertzearekin–, baita Euskal Herriko bake prozesuaren alde ere.

Ezin aipatu gabe utzi abstentzioa: laugarren hautesbarrutian %45,4koa izan da, bosgarrenean %51,1koa eta seigarrenean %51,4koa. Datu horri gehitu behar zaie ere zuri edota baliogabeko botoa adierazi dutenen ahotsa: beste %9 inguru Ipar Euskal Herrian. Zuberoa eta Baxenabarren parte-hartzea Lapurdin baino handiagoa izan bada ere, orokorrean NUPES edo Ensemble hautagaitzen bozkapera eman duten hautesleak gutiengoan kokatu dira.

Laugarren hautesbarrutian, Annick Trounday (Ensemble) eta Iñaki Echaniz (NUPES) hautagaitzen artean burutu da bigarren itzulia; bosgarrenean orain arteko diputatu Florence Lasserre (Ensemble) eta Sandra Pereiraren (NUPES) artean; eta seigarrenean, orain arteko diputatu Vincent Bru (Ensemble) eta Tom Dubois-Robin (NUPES) dira lehiatu. ●



Iñaki Echaniz

28 urterekin, diputatu gazteenetarikoa da. Mugimendu sozialetan ibilitakoa, 2020an aurkeztu zen Biarnoko Oloroe herriko bozetan, Alderdi Sozialistarekin eta orduz geroztik kontseilari da. Jatorri euskaldunak ditu; Beasain eta Azpeitiatik Biarnora migratu zuten bere aita-aita-aita 1968an.



Florence Lasserre

2017an irabazi zuen lehen aldikoz diputatuaren aulkia. Modem alderdikoa, Macronen gehiengoan kokatzen da. Baxenabarreko jatorriz, 33 urterekin departamenduko UDF gazte zentristen lehendakari izendatu zuten. Hauteskunde lehiari lotu eta Angeluko kontseilari izendatu zuten 2001ean eta departamendukoa 2015ean.



Vincent Bru

kanboarra Lapurdiko herri honetako auzapeza izan da 1995etik 2017ra arte. Urte horretan izendatu zuten lehen aldikoz Frantziako diputatu, eta horregatik utzi zuen auzapezaren aulkia, kontseilari izaten segituz. Departamendu mailako kontseilaria ere bada. Politikoki, zentroan kokatzen da.

Datutan

Bake Bidea-ren engaiamendu ituna izenpetu dute Vincent Bru eta Iñaki Echanizek –Florence Lasserrek ez–. Bake prozesuaren aldeko konpromiso argia erakutsi dute, komunikabideetan egindako adierazpenetan berretsi dutena, gainera.

Tematai Le Gayic polinesiar independentista da diputatu gazteena, 21 urterekin. Frantziaren barne segitzen duen kolonia ohiaren burujabetza eta bertako hizkuntza eta kulturen aitortza aldarrikatzen ditu.

Korsikari dagokionez, lau diputatuetarik hiru abertzaleak dira: Michel Castellani, Jean-Félix Acquaviva eta Paul-André Colombani. Laugarrena Laurent Marcangeli da, Macronen aldekoa.

Hamabost diputatu ukan behar dira taldea sortzeko Legebiltzarrean. Lehen aldikoz bere taldea osatuko du eskuin muturrak.

Hamar dira orotara autonomistak edota independentistak diren diputatuak: hiru korsikar; bretoi bat; Polinesiatik hiru; Martinikatik bi eta Guyanatik bat.

ANALISIA



AP/SIPA

Ustekabeko panorama

 JAKES BORTAIRU

Frantses Legebiltzarreko hauteskondeek hiru urtetarako ziklo elektoralak hetsi dute eta bosgarren Errepublikan nehoiz ikusi gabeko panorama utzi. Bigarren aldikoz garaile atera berri den Macron presidenteak ez du lortu bere aldeko gehiengoa legebiltzarrean. Eskuin muturrak diputatu kopuru historikoa lortu du eta eskuin tradizionalarekin bloke erreakzionario indartsua osatzen du hainbat gaietan: segurtasuna, migrazioak, identitatea... NUPES, egindako pario ausarta huts eginik ere, oposizioa lehen indarra da, hor ere aspaldiko joera batekin hautsiz: aliantza sortu da, ez polo moderatuaren inguruan, hamarkadetan Alderdi Sozialistarekin gertatu bezala, baizik eta politika neoliberalarekin haustura, planifikazio ekologiko serioa eta Europako araudi antisozialekin desobedientzia proposatzen duen programa baten inguruan.

Panorama horrek hein handi batean konfirmatzen ditu frantses sistema politiko-instituzionalaren krisia eta birmoldaketaren hasiera. Luzaz ezker transformatzaileak eta parean eskuin tradizionalako korronteek konfiguratu zuten espazio politikoa. Duela 40 urte abiatutako kapitalismoaren fase neoliberalak ondorio sakonak izan ditu eta bloke soziologiko eta politiko berriak azaleratu ditu: “Burges blokea” dugu alde batetik, europazalea, “progresista” autodefinitzen dena eta erreforma neoliberalak eraman nahi dituen. Beste aldetik, muturreko eskuin gogorraren blokea bada, identitatea ikur nagusi duena eta herri klaseen sektore batzuk biltzen dituena. Haatik, biak ados dira sistema kapitalistaren logikarekin segitzeko. Berritasun nagusia da, Frantzia Intsumisoaren estrategiaren arrakastaren ondorioz, egiazko ezker transformatzaileak burua altxatu eta hirugarren bloke soziopolitikoa osatu duela. Ondoko bost urteetan erabakiko diren politikak hiru bloke horien arteko tirabiren eta indar harremanen fruituak izanen dira.

Ipar Euskal Herrian joera horiek ere nabaritzen dira baina ezin uka lurraldeak duen berezitasuna: EH Baik bere etengabeko progresioa segitzen du, ezkerreko lehen indarra dela konfirmatuz. Are gehiago, orain arte ahulena zen eremuetan indarra hartzen ari da. Demostratu du egiazko “herriar batasun ekologikoa eta sozialaren” parte nagusi dela Euskal Herrian.

Ustekabeko panorama honek galdera asko uzten ditu irekirik. Gobernatzeko ariketa lehenik: kasuz kasuko aliantzak bilatuko ditu presidenteak ala akordio orokorra lortzen saiatuko da? Azken bost urteetan egin bezala, eskuin tradizionalaren barneko kontradikzioak zorrotz eta segur aski baliatuko ditu Macronek. NUPESen egonkortasuna dugu beste ezezaguna. Pentsa daiteke Macron saiatuko dela sektore moderatuenak bereganatzen. Frantzia Intsumisoaren etorkizuna bera galderazko puntu bat da. Mélenchon-en garaia amaiturik, lortuko ote ditu funtzionamendu egoia eta barne kohesioa atxikitzen? Ipar Euskal Herrian, frantses ezker jakobinoari oraindik kostatzen zaizkio EH Baik lortu zentralitatea onartzea eta lurralde honen berezitasunak kontuan hartzea. Bizitzen ari den birfundazioak maila horretan ere berritasunak ekarriko ote ditu? ●

Nafarroa erdia sutan

 **XABIER LETONA BITERI**

Joan den asteburuan suak Nafarroa hartu zuen eta aipatzen ari da agian suteek Nafarroan inoiz sortu dituzten kalte handien aurrean egon gaitzkeela. Milaka hektarea baso eta jasotzeaz ziren uztak erre dira. 700 pertsona beren herrietatik atera behar izan dituzte. Astekari honen zierrean (astelehen eguerdia) sute horietako batzuk oraindik ez dira kontrolatu.

Larunbatean hasi ziren suteak, lehen-bizi Legarda, Arroniz eta Arguedas inguruetan. Hego-haize indartsuak laster barreiatu zituen garra inguruetara, eta Bideko Autobia eta eskualdeetako errepide ugari itxi ziren, eta hainbat herri hustu. Larunbatean zehar eta igandean, halaber, Tafallan, Uxuen, Ollaibarren, Berriozaarren eta Erron ere suteak piztu ziren.

24 herri hustu behar izan dituzte uner batean, eta etxeak ere erre dira, esate batera Argiñarizen edo Obanosen. Astelehen goizaldean horietako hamairuk hustuta jarraitzen zuten.

Larunbatean ere, Arguedasko Sendavivako parketik 2.500 pertsona atera behar izan zituzten, baita animalia ugari ere. Parkeko arduradunen esanetan horietatik %98 ongi dira. Arroniz eta Arguedasko suteak igandean kontrolatuta zituzten, eta Berrioza aldean Ezkaba mendian sortutako sutea ere bai.

Astelehen goizaldean egoera hobetzen ari zen Erreniegako sutean –larunbatean Legardan piztu zena–, baita San Martin Unxeokan ere. Tenperatura ba-

retu egin da eta iparrak hezetan pixka bat ekarri du, eta horrek egoera lagundu du. Tenperatuak oso handiak izan dira egunez eta gauez, eta larunbat gauean, adibidez, Iruñean 26,4º jaso ziren, erregistroak daudenetik inoizko altuena.

Ekainaren 22ra arte txinpartak sortitzaleten laborantza makinekin lan egitea debekatu du Nafarroako Gobernuak. Suteen aurkako herrialdeko baliabide guztiak jarri ditu abian, eta dena heldu ezinean ari da. Inguruko erkidegoetako suhiltzaileak inguratu dira laguntzera. Nekazariak ere beren traktoreekin jardun dute sute guztietan, suak aurrea egitea eragozteko zangak irekitzen.

Izarbeibar da eremu kaltetuenetakoa. Legardan hasitako sutea igande goizalderako bailaran bertan kontrolpean zegoen –suteak mendebaldera egin zuen Erreniega eta Etxauribar aldera–. Gares, Obanos, Muruzabal, Adios, Legarda eta beste herririk batzuetan kalte handiak izan dira soro eta basoetan, baina salbuespen gutxi batzuk kenduta, herrietan ez da sua sartu, hainbatetan gertu ibili bada ere. Obanosen bi etxe erre dira, Garesen bi etxalde eta Legardako udalerriaren %95 kiskalita geratu da, herria bera izan ezik gainerako ia guztia.

Arguedas eta Valtierra sutedan lau almatzen erre ziren, eta bi lantegi: Neumáticos Lagun (Michelin) eta laborantza berrikuntzan diharduen Planasa, non 200 herritarrek egiten duten lan. ●

Atzera bota dituzte Nafarroako Erro, Esteribar, Anue eta Ollaibarren jarri nahi dituzten parke eolikoak, ingurumen eraginaren kontrako ebazpenaren ondorioz.

Euskararen Defentsarako Sarea sortu dute Nafarroan. Lehenengo salaketa: Tuterako Hizkuntza Eskolan euskara ikasketak murriztu dituztela.

Zubietako erraustegian isurketa toxikoa izan zen 2020an eta Arkaitzerrekan arrain ugari hil zituen. Orain, Cesar Gimeno eta Ekondakin inputatu ditu Donostiako instrukzio epaitegiak.

Migratzaileak Ruandara deportatzen hastekoa zen Erresuma Batua, baina bertan behera utzi du ekintza Giza Eskubideen Europako Auzitegiak.

Sarek deitutako mobilizazioan, euskal preso politikoei ezartzen zaien salbuespen politika salatu eta haien etxeratzeko bidea urratsez urrats egiteko deia egin dute Iruñean.

Sturgeon presidentek 2023rako erreferendun "legezkoa" agindu du Eskozian, Erresuma Batuaren baimenik gabe balitz ere.



Abolizioa eskatzen duten legeak



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Etxeko langileak gainontzeko langileekin parekatzen dituen legea egiteko asmo dagoela txalotu zuten Madrilén, Espainiako Parlamentuan. Han zeuden langileek esan zutenenez, urteetako borroka aldarrikatzeko jo zituzten txaloak. Erabakia oraingoz konpromiso bat da, lege bihurtzeko bide luzea egin behar duena. Eta lege bihurtuta ere, ongi dakite borrokan jarraitu beharko dutela etxeko lanetan egoera latzenetan daudenengana iristeko.

Txaloak entzun ziren ere prostituzioarekin amaitzeko lege abolizionistari bide eman zitzaionean. Bazuten zer txalotu proposamenaren egileek, garaipena zelako egitasmoari bide ematea. Uleretzen dut ere legearen sokakoek urratsa txalo artean hartzea, posizioen lehiak eztabaida politikoak baino indar gehiago duenean, nork irabazi delako kontua.

Txaloak txalo, erabaki hauek ekarriko dutena da garrantzitsuena, eta Atzerriartasun legeak indarrean jarraitzen badu, ezer gutxi edo ezer ez. Paperik gabe lan egiten duten etxeko langileek eskubiderik gabe jarraituko dute. Eta legea ez da arazoa izango proxenetentzat, paperik gabeko emakumeen premiak eta babes faltak berdin jarraituko badu.

Faltan bota dut diskurtso abolizionista etxe barruko langile *internen* figura onartezinaren aurrean. Gehiegizkoa egiten zait, prostituzioaren gaian bezala ez dudalako lekuri topatzen nire kontraesan, kezka eta zalantzetarako. Baina argi dut marra gorriak badirela, eta errespetatzea lortuko badugu, langileon topagune izan behar direla. Atzerriartasun legea baliatzea langileak mugarik gabe zapaltzeko errazegi bortxatzen den marra gorria da, Gipuzkoako ostalaritzako patronalari galdetzea besterik ez dago. Legearen abolizioa, honetan ez dago beste aukerarik. ●



Ezkerraren garaipen historikoa Kolonbian

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Itun Historikoa koalizioko buruak atzean utzi du Rodolfo Hernández enpresaria, aurrekaririk gabeko garaipenean: sekula boto gehien lortu duen presidente bilakatu da Gustavo Petro. Munduko hogei herrialderik biolentoenetako bat izateaz gain, AEBen eta bere politika neoliberalen ikuspegitik azken hamarkadetan berebiziko garrantzia izan duen herrialdea da Kolonbia.

Gustavo Petro aukeratu dute Kolonbiako presidente ekainaren 19an egin diren hauteskunde presidentzialen bigarren itzulian, botoen %50 baino gehiagorekin. Itun Historikoa izeneko koalizio ezkertiarreko liderrak, zehazki, botoen %50,69 lortu ditu, botoen %94,57 zenbatuta. Uribismoak itxaropena zuen Rodolfo Hernández enpresariak irabaziko zuela, baina botoen %47,04 eskuratu du. Honenbestez, mugarría jarri dute munduan indarkeria-maila handieneko bat pairatzen duen herrialdearen historian. Sekula ez zuen ezkerreko hautagai batek irabazi presidentetza.

“Kolonbia eraldatzeko agindu historikoa da gaurko garaipena. Duintasunagatik, justizia sozialagatik eta ingurumen justiziagatik, gure askatasunagatik. Osotasun eta gardentasun konpromisoa hartzen dugu. Bizitzaren aldeko mandatuia izango da”, adierazi du Francia Márquez presidenteordeak.

“Gaurkoa herriarentzat jai eguna da. Ospa dadila lehen garaipen herrikoia. Aberriaren bihotzean gainezka egiten duen alaitasun horrek arindu ditzala pairatutako hainbeste sufrimendu. Garaipen hau Jainkoarentzat, Herriarentzat eta bere historiarentzat. Gaurkoa kale eta plazen eguna da”, esan du Petrok sare sozialetan.

Petroren programak eredu ekonomikoa errotik aldatzea proposatzen du, nekazaritza eta abeltzaintzako produkzioaren bultzadan oinarrituta, desberdintasunari aurre egin ahal izateko nekazaritza-erreforma egin ondoren. Kolonbian, lurren erdia baino gehiago %2 pribilegiatu batzuen esku dago.

Hauteskunde-egunean Petroren alderdiko bi militante eta buruzagi sozial hil dituzte Guapi eta El Patía udalerrietan, Cauca departamenduan.

Emaitzak jakin berrikan dozenaka milaka lagun kalera atera dira Kolonbia osoan aldaketa politikoa ospatzera. ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

Konplikatua da




ARITZ GALARRAGA

Boris Pahor zendu da. 109 urterekin. Senekari arrazoi emanez, bizitzaren laburtasunari dagokionean. Nahiz ez zen izan bizidunen arteko bat, 1945etik, ezpada Natzweiler-Struthofetik bizirik ateratako bat, alegia hilen artetik. Bizirik atera izanaren erruduntasunak jota bizi izan zen, beraz, gehienera. Desleialtasuna ote da biziraun izana, osoki, gainera, are gozoki? Halako zalantzak aletu zituen *Necrópolis* izeneko liburuan, turista talde frantziar baten alboan, hogeitaz urteren buruan kontzentrazio-esparrura egindako bidaiaren ondotik. Egintzak gertatu ziren bezain gordin azalduz, inolako hunkigarrikeriarik gabe: “Inork, halere, ezin du ukatu bere izatearen barnean kontsolamendua sentitzen duenik, arriskuaren aurrean bera ez beste bat dagoenean. Kondenatu bati edaria eskaintzeko keinu bihozberan, ontasun mugagabe bat egoteaz gain, esker on pizar bat ere badago, zu baitzara besteari eskaintzen diona, eta ez bestea zuri”.

Baina, genozidio-literatura horren aldean (sorpresa batzuk eskaintzen dituen arren, jada nahiko murtzikatua), espero ez nituen gauzak irakurri ditut Pahorrean. Xumeago, bere Italian esloveniar izateaz ere ari da, “Italiako estatuak gure identitatea suntsitzen zuen gure lurrian berean”, edo “Ez nuen ulertzen nola norbait kondenatua izan zitekeen bere gurasoak maitatu zituen hizkuntzan hitz egiteagatik” dioenean. Claudio Magrisek hitzaurrean idatzi bezala, “Pahorren patuaren ironia politikoa baita bera eta Triesteko beste esloveniar batzuk italiar gati-bu gisa izena emanda egotea”. Elkarrizketa batean utzi zuen erortzen: “Trieste konplikatua da, Katalunia eta Euskal Herria konplikatua diren bezala” –eta, ai, ezagutu izan balu Txingudiko badia!–. Ziur nago, halere, nahiago izan zuela jaiolekuaren konplikatasun hori, zer dakit, ezer pasatzen ez den lurralde batean sortzea baino. Gatazkarik gabeko eskualdeak existitzen baitira, baina ezin dut imajinatu zein puntutaraino izan daitezkeen aspergarri. ●

ABSTENTZIOA IRABAZLE...



ADUR

Migrazioa

Bidasoa ibaian Abderraman Bas gaztea zendu da Espainia eta Frantziako estatuen arteko muga zeharkatu nahian. Hendaia mugako kontrolak bertan behera uzteko eta korridore humanitarioak ezartzeko eskatu du hainbat elkarte.

Hiri eredua

Bestelako hiri-eredu baten aldeko manifestazioak 2.000 bat lagun bildu ditu Donostian. Donostiako Udalak entzungor egiten diela eta “botere publikoak hiria herritarrentzat pentsatzeari eta horren arabera jarduteari utzi” diotela salatu dute.

Oihaneder

Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxeari bukaera emanen diote ekainaren 30ean. Lazarraga Kultur Elkartek 2014an hasitako proiektua amaitu eta Gasteiz Antzokiaren proiektuan zentratuko dira. 900 jarduera inguru eta 66.500 erabiltzaile izan ditu urteotan.

LIBANON MINBIZIA BADUZU, HASI DIRU BILA BOTIKAK ORDAINITZEKO, **ESTATUAK EZ ZAITU ARTATUKO**

Gaur estatua kiebra jota dago duela urte batzuk 'Ekialde Hurbileko Suitza' deitzen zuten Libanon. Herritarrei bermatu ezin dizkien oinarrizko zerbitzuen artean dago osasun sistema. Minbiziak, eritasun kroniko larri batek edo buruko gaixotasunak harrapatutako milaka jende geratu da beharrezko terapiak eskuratu ezinik. Herritarrak elkarri lagunduz saiatzen dira moldatzen, baina asko geratzen dira batere irtenbide barik.

 **PELLO ZUBIRIA KAMINO**

Fawzia Fayad deitzen zen. Libanoko albistegietako protagonista bihurtu zen 2021eko urrian telebista batean azaldu zenean, burua soilduta, agintariei erregutuz arren zerbait egin zezatela laguntzeko bera bezala minbizia edukita tratamendurik eskuratu ezin dutenak, ez daukate-lako aski diru botikak eta kliniketako egonaldiak pagatzeko. Libanoren porrot ekonomiko eta finantzarioak berekin hondoratu du osasungintza ere. Bertako diruak baliogabetzearekin dollarrarekiko balioaren %90 galdu du, atzerritik inportatutako farmaziako produktu eta materialak %80 garestitu dira, eta horien ostean gastu mediku

guztiak. Elkarre batzuk ari dira gaixoei lagundu nahian, baina krisia okerragotu ahala horien ezintasuna ere handitu da. Fawzia Fayad 2022ko martxoan hil da kantzerraren kontrako azken borroka galduta, libanoar askorentzako osasun-drama honen ikur bilakatuz.

Gisa horretan hasi du *Au Liban, les malades du cancer abandonnés à eux-mêmes* ("Libanon, kantzerra daukaten gaixoak erabat abandonatuta") kronika Muriel Rozelier kazetariak *Middle East Eye* aldizkari elektronikokan. Artikuluaren buruan Anwar Amrok sinatutako argazkian ageri dira lau emakume –izan zitezkeenak Bilbo edo Baionako klase ertainekoak– salatuz direla kantzerraren superbibienteak eta kantzerra

rra duten gaixoei ezin dutela gehiago itxaron. Mendebaldean bezala bizi izan diren pertsonak, gaixotutakoan herrialde txiro edo gerrak harrapatutako batean bezala estatuak osasun zerbitzurik gabe lagatakoak.

Urtean 12.000 kantzera berri detektatzen omen dituzte Libanon, Osasun ministerioaren arabera. Horietatik asko krisia arte tratamendu egokiz salbatu edo gutxienez bizi luzatzea lortu zezaketena orain heriotzara kondenatuta daude. Hasteko, beranduegi diagnostikatzen dira horietako ugari, diru faltan medikueenganako bisita atzeratuta.

Libanon estatuak 2019an krak egin zuen, aurreko hamarkadetan pilatutako zorpetzeari aurre egin ezinda.



MURRIZKETAK

Minbizia daukaten gaixoak gobernaren murrizketen kontrako protestan 2021eko abuztuan Beiruten, Nazio Batuen Erakundeak han duen egoitzaren atarian. Argazkia: Anwar Amro.

Zanbuluka ari zen egiturari azken errematea eman zioten 2020ko abuztuan Beiruteko portuan gertatutako leherketa handiak eta COVID-19 pandemiak. Libanoko Banku Zentralak guraize handia aterata zerbitzu publiko guztiak kimatzeari ekin zion. Osasungintzari dagokionez, ez bakarrik moztu zituen herritarrei botikak eta tratamenduak pagatzeko funtsak: atzerritik botikak inportatzeko baimenak ere arras gutxitu zituen.

Datu inportantea: herrialde honetan ospitale sarearen %85 esku pribatuetan dago, eta publiko dagoen %15 zaharkitua eta ustelkeriak jotako fama dauka. Beraz, Libanon gaixo baten sendatzeko itxaropena bankuan daukan diruaren arabera zen azken krisiaren aurretik ere. Oraingo "berri-

**Estatuaren porrot
ekonomikoak hondoratu
egin du osasungintza
ere, herritarrei
tratamenduak
pagatzeko diruak arras
gutxituz**

kuntza" da lehen jende pobreak isilean zeramatzan tragedia klase ertainean ohiko bihurtu dela.

Ospitale pribatuek tarifak garestitu dituzte, estatuak txikiagotu egin du -besterik gabe ezerezean utzi ez duenean- tratamendu bakoitzeko gaixoari ordaintzen zion zatia. Ari gara, esaterako, 1.000 dolarretatik hasi eta 3.000 dolarretara iritsi daitezkeen kimioterapia saioez. Nola egin aurre bategi besteko hilabeteko soldata libera libanoarraren debaluazioaren ondorioz 100 dolarren azpitik -eta gutxieneko soldata 20 dolarretan- dauzkan herrialde batean? Kimioterapiaz ari gara, ez aipatu orain Libanon minbizia erantzako puntako tratamenduak, immunoterapia eta bestelako entsegu esperimentalak.

**GREBA MUGIMENDUA**

Botikak eskuratu eta saldu ezinean, Libanoko farmazialariek greba egin zuten 2021ko ekainean. Argazkia: Bilal Hussein.

Horrelako egoeretan espekulazioa nagusitzen da, gaixotasun larrien bazeen zabaltzen diren infekzio oportunisten gisan. Estatuak diru faltaz murrizten baditu atzerrik inportatutako tratamenduak, berehala ugaritzen dira botiken trafikoak eta merkatu beltza, osasungintzako hainbat profesional ustel ere bazkide dauzkana, botikak pilatuz, ezkutatuz, garestituz, legez kontra salduz...

Minbizia daukatenean itolarria bizi dute beste gaixotasun larri edo kronikoak bizi dituzten askok, buruko gaixotasunak dauzkatenek esaterako, Kareem Chehayeb kazetariak *Les pénuries de médicaments, une nouvelle source de détresse pour les Libanais* ("Botiken urritasuna, egonezin iturri berri bat libanoarrentzako") kronikan. Osasun produktuen banatzaileek erremedioak metatu dituztenez –inportatzeko daukaten zailtasunak argudiatuz– hiri eta auzoetan farmaziak behartuta daude botikak tantaka saltzera.

Gaixoak eta beren senideak kondenatuta daude gero eta urrunago


**Libanoar denak
dabiltza erromes
gasolindegiz
gasolindegi, erregai
tanta baten bila;
gaixoak eta haien
senideak, farmaziaz
farmazia**

farmazietara joatera tanta edo pilula bila. Azkenean, sarritan, botikarik egokienaren orde z hain aproposa ez izan eta gainera alboko kalte handiagoak dituen batekin konformatu behar iza-

teko edota egunero hartu beharreko dosia gabe geratzeko beldurrez. Beste gaixotasun larri batzuek baino zarrata gutxiago egiten duten arren, ez da bromakoa gaixo mentalen arazoa krisi egoera batean... zeinak eragiten dituen are eta eritasun mental gehiago.

Krisietan gizakiak bere alde zitalena bezala azaleratu baitezake eskuzabalen ere, sarritan Libanoko gaixo larri eta kroniko askok elkartasun sareetan aurkitu dituzte aringarriak. "MeDonations" da lehenbizikoetakoa: Beiruteko leherketa ondotik hasi ziren boluntarioak botikak bildu eta banatzen, gaixoen eta lagundu nahi zutenen arteko zubi lanean. Erregaien garestitzearekin Internetera mugatu dira. Geroztik ezagunak dira "@medsforlebanon", "@medsforleb" eta gehiago.

Mundu osoan zabaldua dagoen diaspora libanoarrak laguntza handia ematen omen dio sorterriko jendeari. Batzuetan Libanotik Internetez bidalitako errezeta darabilte, sorterrian ez dagoen botika bidaltzeko. Beste zenbaitetan errezeta barik egitea



FAWZIA FAYAD

Instagramen berak ipinitako irudietan. Minbizia zeukala jakin zuenetik hil arte borrokatu zen tratamendu eta botika egokiak eskuratu ezinik sufritzen duten milaka gaixo libanoarren alde.

lortzen dute. Elkarteeek gehienetan solik bitartekari lana egiten dute, beharreen dena eta eskaintzen duena lotzeko. Eskuratutako botikak Libanora doazen bidaiariek eramaten dituzte. Farmazietan eskuratu daitezkeen botikez ari gara, noski: ospitaleetako botikak eskuratzea ezinezkoa da.

Adibidetzat, Thurayya Zreik da egunerokoan burua orekatu samar edukitzeko kimika dosia behar duten askoetako bat. Bera bezala den beste norbaiti lagundu nahian, bere Facebookean ipini du "Seroquel"

Diaspora libanoarrak laguntza handia ematen omen dio sorterriko jendeari, botikak Libanora doazen bidaiariek bidaliz

dosi batzuk emateko moduan dagoela –eskizofreniarako erabiltzen da–. Laster erantzun dio batek, bere amarentzako eskaka. Antzera ari dira Instagram eta beste sareetan. "Elkarri laguntzea da geratzen zaigun bide bakarra", diotso Zreikek kazetariari.

Eskeko eta erromes ibiltzea da gaixo larri eta kronikoen eguneroko errutina Libanon. Libanoar denak dabilta erromes gasolindegiz gasolindegiz, erregai urri tanta baten bila. Are larriago gaixoak eta haien senideak farmaziaz farmazia. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com



Andoni Iturrioz

GURE KULTURAREN MEZENAS



EGIAK ETA EUSKAL KULTURAK GIDATU DUTE NIRE LAGUNTZA



Artean iazko hazilean, Xilaba txapelketaren finala, Amets Arzalluz txapeldun. Hari txapela jartzen, berriz, Andoni Iturrioz, bertsozale eta laguntzaile fierra. Andoniren bidea, ordea, aitarenak markatua dator, *Manuel Iturrioz. Borrokalari baten bizipenak* (Alberdania, 2011) liburuan irakurri dugunez.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Bi historia ere badira. Bata dugu zurea, bistan dena. Bestea, zuen aitarena. Zein da bietan nagusi?

Egiazko historia, aitarena! Oroitzen naiz Londresen bizi nintzela garai hartan, eta ene arreba ere han bizi zela. Urtero, Sarako Arretxea baserria alokatzen genuen, udako. Bi hilabete ematen genituen han, denok: gure gurasoak, gu eta geure ttipiak ere. Aita idazten ikusten nuen beti, 80 urte ere izango zituen ordurako. “Zer ari zara, aita?”, galdegiten nion, eta berak: “Denbora pasa, mutiko!”. Ez zuen besterik erraten. Harreman goxoa genuen aitarekin, baina errespetua ere bai. Horrela, aita hil zelarik, ehorzketan, lehengusu bat etorri zitzaidan, Joxe

[Iturrioz], erranez: “Zure aitak koaderno batzuk eman zizkidan, makinaz jotzeko. Ez dut orain arte astirik izan, baina eginak dira. Zuretzat!”. Eta eman zizkidan.

Aitaren koadernoak...

Uste dut aitak halako orrialde batzuetan idazten zuela lehenbizi, eta kaierara pasatzen gero. Eta bi kaiera ere osatu zituen! Aitaren idatziak irakurri, eta narrazioa espainolez, eta elkarrizketa guziak euskaraz! Irakurtzen hasi, baina ezin nuen, ez nintzen gai. Bihotzeko mina ematen zidan! Baina ene emazteak irakurtzen ahal zuen. Ez daki euskaraz, baina espainolez aski ongi bai. Hartu zituen eta hasi zen irakurtzen... Oroitzen

naiz, biok ohean, eta emaztea galdezka, euskarazko elkarrizketara heltzen zenean: “Eta honek zer erran nahi du?”. Eta nik itzuli egiten nion. Eta, behin, erran zidan: “Arrunt interesgarria da!”.

Erran duzu bihotzeko minak ez zizula irakurtzen uzten...

Ez... Bizi zelarik, aitak ez zuen deus kontatu. Batzuetan zerbait erraten zuen, baina fite hersten zen bere baitara. Eta gero, kaierak, ene lehengusuak emanak! Gure aitak 22 urterekin-edo ikasi zuen idazten eta irakurtzen, eta espainolez hitz egiten, Zumarragan, hotel batean morroi baitzen. Kaierak hartu, eta aitak idatzitakoa lantzen hasi nintzen zenbait



Andoni Iturrioz Eskudero

OIARTZUN, 1945



Goizuetakoa zuen ama, Asun, eta Orexakoa aita, Manuel. Parisen hazi zituzten hiru seme-alabak; Andoni haietan bigarrena dugu, Frantzian hainbat enpresa ezagunetan arduratzen handiko lanak egina. Hortxe dira, adibidez, Olivetti, Philips, CGE (Elektrizitate Konpainia Nagusia)... Lan-harremanak ukan ditu Georges Besse —Renaulteko presidente, 1986an Action Directek Parisko erdiguneko hila—, eta Edouard Balladurrekin. Hala ere, izokinarena egin zuen, aukera izan zuelarik, eta Euskal Herrira itzuli. Gure ekonomiari eta kulturari sostengu eman die, eskuzabal, merezimendurik edo aitortzarik jasotzea espero gabe, gisako laguntasunak jasotzera ohituta bageunde bezala...

historialarirekin eta Hernaniko neska batzuekin, Comet sareari buruzko filma egin nahi baitzuten. Lau urte eman nituen ikerketan, aitaren erranak zuzenak ote ziren. Erran dut aitak 80 urte ere bazituela kaierak idatzi zituenean, dena buruz ari zen, baina erraten ahal dut idatzitakoak zuzen direla, nahaste ttipiren bat izan ezik.

Zuei ez zizuen kontatzen, baina idatzi bai, idatzi zituen...

Baina ez denak ere! Etsenplu bat orain. Zazpi bat hilabete nituela, eritu nintzen, disenteriarekin bat. Medikua erran zuen: “Mutiko hau hila da!”. Arizluzieta baserrian ginen, Oiartzunen. Izeba nirekin egon zen gelan gau osoan, kandela handi batekin, eta ohartu zen goizean bizirik nintzela. Deitu zuten berriz medikua, eta erran zuen: “Nahi baduzue haurra bizirik atxiki, behar diozue eman emaztekien esnea, edo astoarena!”. Astoa bazuten baserrian, baina astarra izaki, esnerik ez! Amak bazuen Oiartzunen emazteki adiskide bat, eta hark eman omen zidan bularra. Horrela salbatu nintzen! Aitak ez du hori kontatzen!

Aitak kontatu ez zuenik badakizu zuk, beraz.

Amari eta osaba-izebei entzunda! Aita klandestino zebilen, Comet sarean. Mugaren alde batetik bestera zebilen beti, eta, behin, Arizluzietara etorri zen. Neguan zen. Elurra ari zuen. Afaltzen ari zirelarik, afari erdierdian, aita zutitu! “Alde egin behar dut!”. Eta amak: “Baina Manuel, erotu al zara? Oraintxe etorria-eta!”. “Ez, ez, alde egin behar dut!”, aitak. Eta aita joan eta ordu laurdenera, baserri osoa guardia zibilez inguratua! Hori ere ez du kontatzen aitak bere kaiertan! Amak eta izebak kontatuta dakit! Egun, pena dut, ezin baitut aitari galderra gehiago egin.

Kaierak irakurri zenituelarik, zerk jo zintuen gehien?

Bizian ez zigula kontatu, horrexek!

Kar, kar... Eta kontatu zuen horretan?

Ez zela gelditzen. Comet sarean zen, klandestino ibili zen batetik bestera, batean zen Goizuetan, bestean Tarbesen (Okzitania) arma-fabrikari lanean alemanak sartu arte. Batean da Argel-sur-Merrekoko kontzentrazio-espae-

rruan, bestean da Bidarteko La Rosaire ospitalean, Donoztirin, Donibane Lohizunen... Ez zen gelditzen, eta eskapatzen zen toki guzietatik! Batetik, ez zen gelditzen, eta bestetik, berriz, hitz gutxikoa zen. Ez zuen asko hitz egiten, baina erraten zidan: “Ez dago heroirik ez bestelakorik, beharrak eragiten du!”. Larre motzean hazitakoa zen, Orexan, gogor, eta beharrak eraginda ibili zen batera eta bestera.

Meliton Manzanasek zuen aitari egindako torturak kontatu zizkien aitak zure lehengusu Joxe eta Jexus Iturrioz: “Ziegara sartu nindutenean nire buruari zin egin nion, handik ateratzea lortzen banuen, Manzanasek hura akabatu egin behar nuela kosta ala kosta!”.

Hori erran zien, bai, eta besterik ere kontatu zidan niri Manzanasen gainean. Aita 1977an itzuli zen hegoaldera “ofizialki”. Garai bateko lagunekin bildu zen Hernanin, bazkaltzen. Batzuk mikelete izanak ziren, beste batzuk Hernaniko gerla garaiko adiskideak. Aitak ez baitzuen gidatzen, neuk eraman nuen autoan, eta bazkaldondoan berriz jaso nuen. Oroitzen naiz bi gauza kontatu zizkidala. Pixka bat edango zuen, eta askatuko zen, beharbada. Bat, erran zidan: “Taberna horretan egon nintzen zain, Meliton zikina hiltzeko”. Ni harritua nintzen! “Zer egin zizun Melitónnek?”. Eta aitak: “Kontu zaharrak dira!”. Eta ez zuen besterik erran. Gero, Bidasoan barna joan ginen, eta Irunen, San Migel geltoki zaharreko parean, erran zidan: “Hortik pasatzen ginen gu!”. Eta nik: “Zer ibiltzen zineten, bada?!” eta aitak: “Kontu zaharrak dira!”. Eta besterik ez!

Zertaz ari zen ezin jakin zuk, idatziak utzi izan ez balitu.

Hori da. Aitak, bestalde, ez zuen idatzi sentitzen zuenik, egin zuena besterik ez. Ez zuen ondorioz ematen, ez zuen mezua ematerik maite. “Zeuk ikasi behar duzu”, erraten zuen, ez zuen ikasbiderik ematen, baina zuzen erraten zituen gauzak, eta goxoki. “Mutiko, gauzak ongi edo gaizki egiten badituk ere, beti hobetu behar dituk!”. Holakoak erraten zituen, bestela bezala.

1945ean sortu zinen, Bigarren Mundu Gerra fini zen urtean,



IZEBA KLAUDIA

“Comet sarea erraten dute, hegazkin pilotu aliatuak Frantziatik Espainiara pasatzen laguntzen zuen sarea, baina geroztik emandako izena da Comet, gerran ez baitzuen izenik. Holako sareak nahi beste ziren eta batak bestearekin lan egiten zuen. Comet izenak hemengo jende xumearen izenak estali ditu. Izeba Klaudia [Eskudero Aranburu] ere hor sartua zen, bederatzi hilabete egin zituen gerizpean”.

gorago aipatu Oiartzungo Arizluzieta baserrian,

Eta 11 hilabete nituela ekarri ninduten Iparralde honetara. Badakit 1946an aitak amerikarrekin joan nahi zuela, Francoren kontrako guda jarraitzera, Gernika batailoia eta Lezok [Urruztieta] eta horiek bezala. Uste zuten gerla Espainiako aldera ere pasatuko zela, baina badakigu amerikarrek ezetz erran zutela. Orduan, nik lau urte nituela, gure aitak familia osoa hartu, gure ama eta gu bi anaia zaharrenak, eta Parisera. Oroitzen naiz ttipitik euskal etxera joaten girela Aberri Eguna ospatzera.

Hantxe ezagutu nituen Jose Antonio Agirre lehendakaria eta Gernika batailoiko gudariak.

Baina nola heldu zineten Parisera?

Bigarren Mundu Gerra fini zelarik, eta Francoren kontrako gudak-eta baztertuta, familia aurrera atera behar zuela pentsatu zuen aitak. Gainera, ni orduantxe sortu nintzen. Lehenik, aita Donibane Lohizunen geratu, eta espartinak egiten ikasi zuen Peña izeneko batekin. Peña horrek bazuen sozio bat, Sotes, Amberten (Frantzia) ari zena espartinak egiten, eta hiru seme zituen Donostian, 14 eta 17 urte bitartekoak. Eta tratua egin zuten: Sotesek galdegin zion aitari hiru semeak Iparraldera ekartzea, eta, trukean, gure aitari espartinak egiteko baimena utziko ziola.

Eta espartinak egiten hasi zen aita Donibane Lohizunen?

Ez, baimena hartu eta Puy-de-Domen (Frantzia) muntatu zuen atelierra. Kontratua lortu zuen Michelinekin, langileek espartinak erabiltzen baitzituzten, eta lantegiak dohainik ematen zizkien. Gutxi pagatuak obreroak, baina espartinekin! Kar, kar... Sotes ohartu zen negozio polita egiten ari zela gure aita, eta baime-na kendu zion! Nik hori amak eta izebak kontatuta dakit, ez aitak kontatuta! Horrela joan ginen denok Parisa, eta egin genuen bizia.



**Aitak esan zidan,
'Taberna horretan
egon nintzen zain,
Meliton zikina hiltzeko!
Ni harritua nintzen!
'Zer egin zizun
Melitonek?'**

Erran duzu lau urte zenituela Parisa joan zinetenean...

Bai. Hiru senide ginen, arreba Amberten sortua ordurako, eta gurasoak. Etxean dena zen euskara, eta bost urterekin eskolara hasi nintzenean ez nekien frantsesik. Baina haurrek fite ikasten dituzte hiz-

kuntzak, eta nik ere erraz ikasi nuen frantsesez. Amak ere frantsesez ikasi nahi zuen, eta frantsesez galdetzen zigun zerbait, baina guti. Gu gabe ikasi zuen. Aita zaharragoa zen, eta ez zuen hainbeste frantses ikasi. Gure etxeko bizia euskaraz zen Parisen.

Etxean euskaraz, eskolan frantsesez, karrikan ere halatsu, atzerrian eta nerabetan ere... Euskarari eutsi zenion?

AITA TORTURATUA

“Handik ordu batzuetara bizitza osoan ahaztuko ez nuen bisita bat jaso nuen. Ume aurpegia zuen polizia zen Melitón Manzanás. Guardiei ni biluzteko eta eskuburdinak jartzeko agindu zien. Lurrean ertz zorrotzeko hartxintxarra zabaldu zuten eta hantxe belaunika-razi ninduten. Hartxintxarrak berehalaxe larrutu zizkidan belaunburuak. Guardiek berriz belauniko jarri ninduten eta Manzanasek garrasika eta ostikoka eraso zidan. Tarte-ka erori egiten nintzen, eta Manzanasek zapaldu egiten ninduen hartxintxarrak azala urratzeko...” (Manuel Iturrioz. *Borrokalaria baten bizipenak*).

Azken hitza

MEZENASGOAK

Badira mezenasgoak, eta inork uste baino gehiago dira gure inguruan. Batzuk datoz fundazioen eskutik. Beste batzuk, enpresa handi eta txikietatik, edota pertsona fisikoengandik. Zerga-kenkari eta pizgarri indartsua jartzen zaizkie denei. Andoni Iturriozek, berriz, egia eta kultura ditu eragile.


12-13 urte nituela, ohartu nintzen erraztasuna galtzen ari nintzela. Aldizkari bat iristen zitzaigun etxera, *Euzko Deya*, eta haiek irakurtzen eta buruz ikasten hasi nintzen. “Euzkadi gure baratza kutuna, euskera bere lorea / Lore maitea hil nahirik, etsaiak alfer ari dira / Hau hilko duenik ez da sartuko / inondik Euskal Herrira!”. Holakoxeak! Kar, kar... Edo istorioak: “Nora hoa mutiko?... Han behe-
ra!... Ta nondik hator?... Han goitik!”. Kar, kar... Holako gauzak! Anaiarekin euskaraz egiten nuen; are gehiago, toka egiten genion elkarri, aitzak toka egiten baitzigun, eta ikasi genuen, pixka bat, bederen. Arreba txikia, berriz, lotsatzen zen euskaraz hitz egiten. Ez zen lotsatzen euskalduna izateaz, baizik emigrante izateaz.

Hori ere bai...

Oroitzen naiz eskolan deitzen zigutela “*Sale espangua*”. *Espangua* hori da espainol, baina gaizki errana. “Espainol zikina”, deitzen ziguten. “Ni espainola naiz eta zer!”, erraten nien, baina ez nintzen batere espainola sentitzen. Ez nekien espainolez ere, baina hori erraten baitziguten, nik kontra, eta anaiak ere bai! Horrela berpiztu nuen ene euskara, eta ikasi nituen euskarazko hitz berri pizar batzuk. Eta, bestalde, Parisen ezagutu nituen Zuberoako jendeak. Antzerki bat muntatu nahi zuten, Daniel Landarten *Bai ala ez*. “Hori ez! Xehatuko naute! Aitzak bere zintura larruzkoarekin sekulakoak ematen dauzkit...”. Ene euskara berpiztua zen, eta beste euskara batzuk entzuten hasi nintzen, eta Parisen bazen denetik!

Zuberotarrak Parisen, erran duzu. Txomin Peillen ezagutu zenuen, edo Jon Mirande?

Txomin Peillen bai, euskarazko klaseak



eman zizkidan. Baina linguista amorratua baitzen, ez zigun euskara irakasten, hizkuntza analizatzen zuen! “Hau hortik heldu da... Hau latinetik... Hori ez dakit nondik...”. Interesgarria zen, hala ere. Jon Mirande ez nuen ezagutu, baina [Txomin] Peillenek beti aipatzen zuen. Maite zuen Jon Mirande!

eta asteburu osoa libre nuen, familiarekin. Horrela bizitu naiz. Gero, batean eta bestean laguntzen ahalegindu naiz, Herrikoa, Loreki, Alki [Kooperatibak, ekonomia sozial eta solidarioa xede], Orexa-ko gazteei —aita hangoa bainuen—, eta ahal izan dudana proiektuetan.

Larraldeak kulturagunea ere aitzinatuz, adibidez. Eginak egin, zerk bultzatu zaitu besteri laguntzera, edota Larraldeak bat sustatzera?

Egiak eta euskal kulturak gidatu dute nire laguntza. Behar da kemena egia erraiteko. Juduak maite ditut, berek erraten duten hori: “Erran ezazu beti egia. Hartara, ongi egingo duzu lo, eta besteek ez!”. Kar, kar... Gu larre motzean hazi ginen, ez dugu behar handirik, aski badugu! Ongi bizi gara, ez pentsa! Gai ginen Larralde berritzeko, geure etxe berria izaiteko, besterik zer behar duzu? Egunean hiru aldiz jaten dut!... ●

Zuen aita “enpresaz enpresa” ibili zen gisara ibili zinen zeu ere denbora guzian, Sustrai Colinari adierazi zenionez (ARGIA, 2013ko irailak 8). Erretreta hartu, eta Senperera etorri zinen...

Gogoia nuen, izokina bezala, Euskal Herrira itzultzeko! Baina erretreta baino lehenago ere hemen nintzen, anaiari lur puska bat erosi eta Larralde-berria etxea egin genuen. Emaztekoa kontent zen, bi semeak ere bai, estudiatzen. Nik, berriz, astelehenean goizean goiz hegazkina hartzen nuen, eta munduan barna lanean ibiltzen! Ostiral arratsean itzuli,





Marc txibatoa



DAVID BOU
DIRECTA-KO KAZETARIA

Hilaren hasieran, Directa-n argitara eman dugu Espainiako Poliziako kide bat bi urtez infiltratu dela etxebizitza eskubidearen aldeko mugimenduan eta Kataluniako ezker independentistan. Ikerketa erreportajeak eragin handia izan du iritzi publikoan eta agenda politikoan.

Bartzelonan, CUPEk Unibertsitate Sailari eskatu dio argitzeko nola matrikulatu ahal izan zen polizia unibertsitate publikoan nortasun faltsuarekin. Halaber, Barne Sailari eskatu dio zehazteko zergatik den pertsona bakarra etxegabetze bat geldiarazten saiatzeagatik Esquadra Mossoek jarritako isuna heldu ez zaiona.

Madriren, Kataluniako alderdi independentistek Fernando Grande-Marlaska Barne ministroaren agerraldia eskatu dute. Auzian inolako frogarik gabeko espekulazioak direla adierazi du Marlaskak. Lehenago, bere ministerioak ez zuen adierazpenik egin nahi izan, Poliziaren Zuzendaritza Nagusira desbideratu gintuen, eta zuzendaritzak mezu labur batekin erantzun zigun: “Ez dugu esateko ezer”.

Jakina, ez dugu ezer espero tortura salaketak ez ikertzeagatik Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren zazpi kondena pilatu dituen epaile batengandik. Ez dio ezertarako balio perizial fisionomikoak, ziurtasunez zehazten duena I. J. E. G. polizia eta nortasun faltsuarekin infiltratutako Marc Hernández Pon pertsona bera direla. Ez diote balio ere aurkeztu ditugun dokumentu ofizialek,

Barne Ministerioak
ez zuen adierazpenik
egin nahi izan.
Poliziaren
Zuzendaritza
Nagusiak erantzun
zigun: “Ez dugu
esateko ezer”

argitaratutako argazkiak eta engainua berresten duten dozenaka testigantzek.

Harrapatu ditugula onartzea litzateke ametitzea baliabide publikoak bideratzen dituztela kolektiboak espiatzeko, borrokatzen dutenak hezkuntza publikoaren alde, espekulazioaren aurka edo inor etxerik gabe gera ez dadin. Horiek dira Sindicat d'Estudiants dels Països Catalans, Casal Popular Lina Odena eta Resistim al Gòtic mugimenduen helburuak, haietan infiltratu zen agente bikoitza prozesu independentistaren aurkako Espainiako Epaitegi Gorenaren epaiaren ondoren. Hori guztia, Pegasus programa israeldarrarekin independentisten dozenaka telefono mugikorren interbentzioarekin paraleloan.

Bi aukera besterik ez zaizkigu bururatzten: edo Kataluniako errealtateari buruz duten ezjakintasuna hain da han-

dia, jarduera publikoa duten eta parte hartzera irekita dauden erakundeen informazioa biltzera bideratu behar dituztela ahaleginak, legez kanpoko edozein jardueretatik aldentuta badaude ere; edo, besterik gabe, beldurra eta mesfidantza piztu nahi dute militanteen belaunaldi berrien artean. Lehenengo hipotesia sinesgarria da, bigarrena, berriz, ondorio saihestezina epe laburrean.


Dozenaka gazte erabat harritu dira jakitean beren kidea, zenbait kasutan laguna, gezurretan aritu zaiela denbora horretan guztian. Frustrazioa erruduntasun sentimenduarekin nahasten da, ustezko “inozotasun” baten ondorioz. Baina argi eta garbi esan behar da maitasuna eta konfiantza izan behar dutela edozein militanteren balio nagusiak. Defendatzen ditugun arrazoiekiko maitasuna, eta bide hori partekatzen dugun pertsonetikiko konfiantza.

Marc erretiro batez gozatzen ari da orain, Menorca jaioterrian. Duela hilabete batzuk etxebizitza erosi zuen zergadunon diruarekin: gazte-talde baten salartari aritzeko misio arriskutsua aurrera eramateagatik irabazi duena. Kontatzen digute horretaz harrotzen dela bere lagunaren aurrean, berak bezala inoiz ez dutenak ulertuko bizitzako gauzarik politenak ez direla diruagatik egiten, kontentzimenduagatik baizik. Horregatik izan beharko lukete argi Marc bezalako basailu bakoitzeko, ehunka gazte daudela prest beren idealak ez saltzeko. Inoiz ez arte, txibato. ●

Galderak, gure bizitzaz bestaldeko eskolaz...



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Zergatik da eskolan garrantzitsua goa taula periodikoa ezagutzea, entxufe bat muntatzen jakitea baino? Zergatik ikasten da eskolan prestigioa duena bakarrik? Eta zergatik du prestigio handiagoa eskolan ikasten denak, kanpoan ikasitakoak baino?

Nola atera daiteke gazte bat eskolatik botoi bat josten, paretak pintatzen, edo bizikleta bat konpontzen jakin gabe? Ez al zegoen eskolaren oinarrian bizitza on baterako prestaketa? Eta ez al dira horrelakoak ongi bizitzeko beharrezkoak?

Zergatik ez dugu ikusten, bizitza gris baten patua baino ez dela haurrei eta gaztetxoei eskaintzen ari gatzazkiena? Ez al gara ohartzen gizarte neurotikoa jasateko beharrezkoa den trebakuntza dela eskola?

Zergatik da hain handia bizitzarako behar dugun ikasketa-multzoaren eta eskolan arrakasta izateko behar dugunaren arteko distantzia?

Zergatik kontsideratzen da inteligen-teagoa eskolako jakintzak dituen ikasle bat, beste mota batekoak dituen baino?

Zergatik gutxitzen da urtetik urtera eskulanari ematen zaion garrantzia eta denbora? Zergatik hobesten da hainbeste jakintza intelektuala? Zergatik ez du langile munduarekin lotutakoak eskolan to-kirik? Zergatik ez ditugu ikusten ikasleak

apalategiak eraikitzen Lanbide Heziketan baizik, adibidez? Zergatik kontsideratzen dugu horregatik porrot egin dutela?

Zergatik zatikatzen da jakintza ikas-gaika, bizitzan ez baldin badu ikasteak horrela funtzionatzen? Zergatik ez dugu nahi bizitzako egoera berez susperra-riak izan daitezela ikasketa integralaren testuinguru eta abiapuntu? Zergatik uste dugu bidaia baten antolaketa ezin dela izan, bere horretan, geografia, matematika, historia, biologia ikasteko nahikoa? Zergatik bilakatzen dugu ikasketa hain aspergarri, hotz, urruneko eta abstraktu?

Zergatik naturalizatu dugu pertsona gazteak eskolan egon behar izatea, zen-bat eta zortzi urtez gutxienez, eta 30 bat orduz asteen? Zergatik izan behar du es-kolak umeen bizitza-esperientzia gehie-naren antolatzailea? Zergatik iruditzen zaigu hain garrantzitsua haurrek azkar ikastea berenak ez diren interesen arabe-ra funtzionatzen?

Zergatik esaten diote hezkuntza-sis-tema, eta ez ikasketarena? Zein da or-duan helburua, haurrek ikastea, ala guk irakastea?

Zergatik diseinatzen dugu denok mo-mentu berean ikasi behar dugunaren cu-rriculuma? Zergatik daukagu ume batek zerbaitekiko jakin-mina noiz edukiko duen zehazteko beharra? Zergatik egi-

ten dugu, nahi duten hori eta nahi duten unean ez egiteak ikasteko gogoa itzal-tzen duela jakinik ere? Zergatik dugu nahiago haurrek nota onak ateratzea, ikastea baino? Zergatik ordaintzen dugu ikasleen erritmoa ezin errespetatzearen eta arreta pertsonalizatua sakrifikatzearen prezio garestia?

Zergatik dugu beldurra haurrek ez dituztela beharrezkoak diren gauzak ikasiko? Ikasi gabe bizitzea posible bal-din bada, benetan da eduki hori beha-rrezkoa? Zergatik ikasi behar dugu gure benetako beharrari erantzuten ez dion hori? Zergatik da diferentea guri eta bo-tere-sistemari komeni zaiona?

Zergatik normalizatu dugu haurren ikasteko gogoa eta plazer naturala no-ta-sari diferituek ordezkatzeko? Zerga-tik onartu dugu pertsonen kalifikazioa, eta horiek izatea gainera porrotaren ala arrakastaren definitzaileak? Zergatik uste dugu lehia eta hierarkia hain berez-koa duen erakunde batean elkartasunak tokia izan dezakeela?

Zergatik sailkatzen ditugu haurrak adinaren arabera? zein beste komunita-te naturaletan gertatzen da hori?

Zergatik ez dugu ikasgelen disposi-zioan berean antzematen heziketa-era-kunde diziplantatze borondatea?

Zergatik...? (Zuk erantsi galdera) ●

Aurrera, sasi guztien gainera



**ZIGOR ETXEBURUA
URBIZU**
ZINEGOTZIA

Kuxkuxean ibili naiz Twitter Analytics-en, joandako urtebeteen txio-katutako burutazioen artean. Hamabi hilabeteotan, nabarmendutako txioen artean hilerio agertu da bateren bat euskaraz bizitzen saiatzeagatik euskaldunok pairatzen ditugun zailtasunei buruzkoa (tira, martxoan ez, Ategorrietako etxe kaleratzea eta Eneko Goiak areagotu duen etxebizitza arazoa izan ziren izarrak). Kasu batean izan ezik, txioetan aipatutako zailtasunen eragileak EAEko erakundeak izan dira: Epaitegi Nagusia (2), saltegiak (4), Donostiako Udala (6) eta Eusko Jaurlaritza (7; Osakidetza, Ertzaintza, Hezkuntza, EITB). Hau da, eta txio horiek balio bezate erakusgarritzat, euskaltzale ugari sentitzen duela geure erakundeak direla EAEko euskaldunok euskaraz bizitzeko izaten ditugun oztopo nagusien eragile nagusienetakoak.

Horregatik, harrigarria iruditu zitzaidan Euskara Aurrera ekimenak, mobilizazioaren beharra argudiatzeko azaldutako euskaldunonganako zapalkuntzaren adibideen artean, nagusiki, Frantziako Estatuaren, Nafarroako erakundearen eta EAEko Epaitegi Nagusiaren bazterkeria eta jazarpenak aipatu izana, eta EAEko erakundeak, ordea, zeharka

baizik ez aipatzea; eta argi gera bedi ez naizela ekimen hori zalantzan jartzen ari, behar-beharrezkoa iruditzen baitzait ildo aldarrikatzailea berreskuratzea, eta, batez ere, gazteen artean kontzientziario euskaltzale erradikala eragitea. Uler dezaket erakarri nahi izatea euskarak aurrera egitea nahi dugun guztiak, eta pentsatzea gauzak gordinegi esanda, agian, zenbait ez zirela eroso sentituko.

Baina euskararen egungo egoera EAEen ere bada berrogei urteotako erabaki politikoaren, asmatzearen eta akatsen ondorio. Noizbait adierazi izan dut uler dezakedala instituzionalizazioaren lehen urteetan motelago joan izana euskararen berreskurapenean; ez nator bat, ordea, azken urteotan gertatzen ari den moteltze programatuarekin. Inoizko euskaldun kopuru handiena dugularik, ezin da ulertu nola araudiak ez duen garapen eraginkorragoa izaten, nola erakundeek ez duten garaiarekin bat egiten, nola euskaldunon eskubideen bermeak jarraitzen duen etorkizuneko gai izaten. Euskarak eta euskaldunok aurrera egin behar dugu, eta egin egingo dugu, sasitza bihurtuta dauden oztopoen eta aitzakiak eta hitz hutsak eskaintzen dituzten arduradun politikoaren gainera igaro behar badugu ere. ●

Gure protesiak



**CASTILLO SUAREZ
IDAZLEA**

Etxe bat husten duzunean beti gertatzen dira kantak; etxetik ateratzea aholkatzen dizuten lagunak zein etxearekin geratzea dela onena esaten dizutenak; etxebizitza-agentzietako iragarkiak; medikueterako hitzorduak; desagertutako hizkuntzak. Norbait maite duzunean, harekin bakarrik erabiltzen duzun hizkuntza sortzen duzu. Lengoia hori hil egiten da harremana eten egiten denean. Gure bizia, gure puskak, berriz ikusiko ez dugun jendearengan uzten ditugu. Horregatik bizitzea da maite gaituztenak galtzea eta berriz bilatzea, labur esanda. Izan

ere, maite gaituztenean sentitzen gara indartsuen, indartsu gaudenean baino gehiago, nahi baduzu. Baina euria ustekabearen etortzen da, bizitzako pertsona interesgarriak bezala. Eta ezin da zer egin euria eteteko. Berdin gisan, ezin da ezer egin abandonatuko zaituela erabaki duena geldiarazteko. Eta beharbada erakartzen gaitu abandonatuko gaituenak, edo horretarako asmoa duenak; baina gurekin geratzen direnak, erabakita edo ez, horiek dira gure protesiak: hazkura ematen digute, mina ere bai tarteka, baina horiek gabe ezingo genuke bizi. ●

INAKIBEREZIARTUA

ENBALAJEAK
BILTEGIATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA



25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA



**EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI**

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

Antirrazismoa: inklusiboak ez garenongan jar dezagun fokua



IRATI TOBAR EGUZKITZA
FEMINISTA ETA
SINDIKALISTA

Arrazista ez izatea eta antirrazista izatea ez dira gauza bera. Hori da sindikatuko kide arrazializatu-ekin batera ikasitako lehen irakaspena. Antirrazista izateak, arrazakeriak kontzienteki ez errepikatzeaz gain, ahaleginak egin eta arrazakeriaren kontra urrats zehatzak ematera garamatza. Jarrerara aktibo bat du bere baitan, arrazializazioan oinarritzen den zapalkuntza sistemari aurre egitekoa.

Gutako bakoitzak leku ezberdinetik eraiki behar duen jarrerara aktiboaz ari gara, ez delako berdina zapalkuntzaren subjektu direnen bidea edo pribilegio egoeran gauden zuriona. Bigarren talde honetan kokatzen garenok zainetarraino dugu sartua supremazia zuria, askotan klasismoarekin batera gure barruetan nahasi eta korapilatzen zaiguna.

LAB sindikatuak apirilean antolatutako antirrazista baterantz jaialdian Quinddy Akejuk gidatutako tailer formatiboak asko astindu gintuen, ispiuaren aurrean jarri eta gure praktika pertsonalez hausnarraraziz. Bertan ikasi genuen “zurion hauskortasun” terminoa: arrazak pribilegio-egoeran kokatzen gaituela onarturik, geure kontraesanak kudeatzeko erabiltzen ditugun hainbat eta hainbat argudio; izan ere, nork aitortuko dio bere buruari arrazista izan badela edo bagarela?

Gutasun berri bat eraikitzearen erronka da antirrazista izan nahi dugunona. “Besteak” eta “gu” terminoak baztertze ariketa kontzientea izan behar du, “nazio eta herri zapalduko herritarren” iruditegia guztiz eraldatu duena eta eraldatu behar duena. Zapalduak izanagatik, bertako zuri kaukasoarrak zapaltzaile ere bagarelako askotan, eta

pribilegio-egoeran edo posizioan egon bagaudelako uneoro; pribilegio egoera horrek eskubideak aitortu dizkigu eta aukera gehiago eman. Beraz, gure jarrerara, hautu eta praktika pertsonal eta kolektiboak aztertu eta beste dinamika batzuk sortzeaz aritu behar dugu.

**Antirrazismoan
aurrera egiteko,
ez dezagun fokua
edo arreta falta
direnengan jarri; jar
dezagun inklusiboak
ez garenongan**

Ditudan harreman afektiboak hausnartzera narama beti gaiak: norekin eraiki ditudan harremanak, zein diren lagun sarearen parte; eta noski, zein ez. Izan ere, hutsuneak errealitatearen isla dira eta diagnostiko zehatza ematen digute. Alta, antirrazismoan aurrera egiteko, ez dezagun fokua edo arreta falta direnengan jarri; jar dezagun inklusiboak ez garenongan eta inklusiboak ez diren espazio, komunitate, antolakunde, egitura eta abarretan. Diseinatu ditugun mekanismo eta tresnak egitura kolektiboak sortzeko, pertsona guztion eskubide eta aukera berdintasuna bermatzeko eta borrokatzeko. Gaia hezkuntzara eramanez, nahasi eta banatu ditugun zuri autoktonoak; inklusiboak ez garenak hautu horiek hartzen ditugunak baikara. ●

ehz

uztailaren

11213

I R I S A R R I

JUANITA BANANA LEE SCRATCH POURRI DJ TXAKO
DJ REIMY MARKO ET SELECTARAK Ø R A
RAKATAPUNK GAITISTANEKO ORKESTRA
KINBONBO BRASS BAND AMORANTE
JOSEBA TAPIA LUMI KILIMAK
ATOEM IBIL BEDI BULEGO
NIKO ETXART FUSIBLE FIZT&FURIUZ
ETA HAPA HAPA AH! SEPULTURA
XUTIK KWANTOU E Z P A L A K
EESAH YASUKE FRIKUN ØDEI
DELIRIUM TREMENS
SOFA GAILU VULK PASADENA
MADELYN ANN
MERINA GRISFRIGO JOSEBA IRAZOKI
CALLING MARIAN ETA LAGUNAK

Behar Zanak 75 urte

Herrietako taldeen esku dago pilotaren geroa

Bada zerbait pilota elkarte batek 75 urte betetzea. Villabonako Behar Zanak 2021ean bete zituen baina aurten ari da ospakizunak egiten, pandemiako neurri ertsatzailerik gabe. Bertako atea jo, eta euskal pilotako modalitate anitzak lantzen dituen talde oso dinamiko batekin egin dugu topo. Hitz egin digute Ipar Euskal Herriko taldeekin duten loturaz, harrobi lanaz, emakumeen parte-hartzea sustatu nahiaz, adinean aurrera ere talde giroan kirola egitearen pozaz... eta ekainaren 25erako prestatu duten errebote txapelketa bereziaz.

 **ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA**  **DANI BLANCO**

Behar Zana elkarteak argi ditu bere oinarriak: "Herriari begira lan egin eta euskal pilota sustatu behar du. Euskal pilotaren barruan, gure oinarria da modalitate ezberdinak lantzea eta dena ez esku-pilotaren bueltan egitea, nahiz eta gaur egun hori den mediatikoena eta ondorioz jende gehien erakartzen duena. Beste oinarri bat hizkuntza da: Behar Zanak zaintzen du pilota gure herrian izan dadin umeak euskaraz bizitzeko gune bat; horretarako, gauden begirale guztiak euskaldunak gara". Iñaki Lizasoren hitzak dira, Villabonako pilota elkartean buru belarri lanean ari den ki-dearenak. Aratz Luisa du ondoan, el-

kartean Jon Ander Artolarekin batera joko garbiko irakasle lanetan ari dena eta Luisak beste oinarri bat gehitu du: "Errebote eta joko-garbiko begirale eta jokalariek gisa, ikusten dut bi modalitate horiek aukera ematen digutela Iparraldearekin lotura mantentzeko: bakoitzaren ezaugarri kulturalak partekatzeko tresna ere badira elkarrekin jokatzeko ditugun partidak, eta saiatzen gara umei txikitatiki balio horiek transmititzen". Behar Zanak trinket eta xare jokalariek ere oso maiz entrenatzen eta jokatzeko dute Iparraldean. Urtetan elikatu dituzten harremanen bidez, Behar Zanak Iparraldeko hainbat elkarterekin ditu loturak, esaterako, Angeluko Hardoitarrak elkarrekin.

PILOTA JOTZEKO HAMAIIKA MODU

Euskal pilotan jokatzeko modalitateak oso anitzak dira, erabiltzen den frontoiaren eta erremintaren arabera. Behar Zanak Amasan eta Villabonan ezker paratadun frontoiak ditu eta erdigunean errebote plaza; eta mugakide duen Iru-ran du trinketa eskura. Frontoi haue-tan eskuz, saskiz (erremontea eta punta salbu) eta palaz jokatzeko diren modalitateak lantzen ditu Behar Zanak. Are gehiago, modalitateez galdetuta, erra-zago egin zaie irakasten ez dituztenak aipatzea: "Laxoa ez da jokatzeko, hori Baztanen, Irurita inguruan jokatzeko da", hasi da Lizaso. "Villabona puntista herria izan da baina egun elkartean ez dago ez puntistatik eta ez erremontis-

tarik", jarraitu du Luisak eta Lizasok azalpenarekin erantzun dio: "Puntan eta erremontean jokatzeko frontoi luzeagoa behar da eta gure inguruan Tolosan eta Galarretan daude horretarako egokiak. Pala luzean ere ez da jokatzeko, arrazoi beragatik. Horiek kenduta esango nuke modalitate denak jokatzeko direla: bote luzean jokatzeko dugu tarteka, paxakan jokatzeko dugu, trinketeko eskuzko eta erremintazko (xarean) modalitateetan aritzen gara nahiz eta herrian ez daukagun trinketik, neskak hurrengo ikasturtean paleta argentinarrean jokatzeko hasiko dira...".

Jolasteko aukera horiek denak dituzten arren, telebistaren eraginez eskuzkoak duen prestigioa dela-eta haurrek erremintak hartzea asko kostatzen dela adierazi du Luisak: "Esku-pilotariak kexatzen dira beste kiroletara joaten direla gaztetxoak eta horrela hustutzen direla eskuzko taldeak. Bada joko-garbi gauza bera gertatzen zaio esku-pilotarekin: eskuzkoaren galbahea pasa behar duen modalitatea da. Telebistak indarra ematen dio esku-pilotari baina beste modalitateetan hankamotz geratzen da".

Pilota jokoen aniztasuna bultzatzeko, larunbat goizetan saio libreak eskaintzen dituztela azaldu du Lizasok: "Horietan aukera ematen diegu modalitate ezberdinak probatzeko. Adin aniztasuna ere egoten da bertan, aurre-benjaminetatik infantilak arte elkarrekin aritzen dira eta era guztietako erremintak eramaten ditugu: palak, saskiak, plastikozko eskularruak ume txikiek errazago ikasteko, eta eskuz aritzeko aukera ere egoten da. Txikitatik dute probatzeko aukera eta gustatzen zaionak badi-tu taldeak urtean zehar joko garbin eta errebotean aritzeko".

TALDEA EGINDA LANTZEN DA OINARRIA

Egun Behar Zanan guztira 120 pilotari inguru ari dira modalitate eta adin guztiak kontuan hartuta. Ia %50 eskuz ari dira eta %50 federatu gabeak dira (pilota eskolan ari diren 12 urtez behe-rakoak): "Pixkanaka ari gara kopuruak orekatzen, federatu kopurua handitzen baina etorkizuna egon dadin ezinbestekoa da pilota eskolan pilotari asko izatea", Lizasok esan duenez. Adinean gora egin ahala, pilotan jarraitzen dutenak

gero eta gutxiago direla azaldu du: "Azken urteetako datuak aztertuta, ikusten da 20-25 aurre-benjamin izaten ditugula eta ondoren izugarri murrizten dela taldea: hauetatik infantiletan jarraitzen dutenak agian bost soilik dira. Kadetetara zortez bost pasatzen badira, jubenetara hiru pasatzen dira. Horregatik, bultzatzen dugun beste balio garrantzitsu bat lagun taldeak dira: gure helburua da pilotaz gozatzea, gustura ibiltzea, kirola egitea, eta aurrera begira haiek entrenatzaile ere izatea...". Talde giroa lantzeko hamaika ekintza eta irteera egiten dituzte eta "pilotari horietako asko kuadrilla bihurtzen dira", Lizasok esan duenez.

Behar Zana elkarteak egin duen plan estrategikoan horixe dute erronketako bat, txikitako talde zabal hori ahalik eta gehien mantentzea adin nagusiagoetan. "Gaur egun indargunea eskua da eta ahulgunea agian emakume kopurua, nahiz eta palaz aritzen diren nesken kopurua esanguratsua den. Joko garbi eta erreboteko pilotariei diskriminazio positiboa egiten saiatzen gara baina horretan ere gustatuko litzaigukeena baino pilotari gutxiago ari dira", Lizasok esan duenez.



Gaztetxo gehienek pilota uzten duten adina 11-12 urte inguru horretan kokatzen du Lizasok: "Batetik, futbolak indar handia du herri honetan eta ikasketetan DBHra pasatzerakoan batzuk kirol bakarra aukeratu behar izaten dute; bestetik, pilota gogorragoak erabiltzen eta takoe-kin jolasten hasten gara. Eta mina sentitzea ez da gustagarria. Mina duenak saskia har dezake, edo pala edo xarea, baina kosta egiten zaie esku-pilotara mugatuta duten ikuspegia zabaltzea eta asko futbolera joaten diren bezala beste askok kirola uzten du". Luisak adierazi duenez, "lehen zubi-lana egitea hortxe tokatzen da. Eskutako minez daudenek ikus dezaten pilotan aritzeko beste alternatiba batzuk badituztela herrian bertan".

Modalitate guztietan, etorkizuneko pilotariak herrietako talde eta elkarteetan trebatzen dira, eta elkarte hauek lurraldeko federazioaren aterkipean daude (elkarteek osatzen dute bere lurraldeko federazioa). Aldiz, goi mailako pilota mundua enpresa gutxi batzuen bidez kudeatzen da. Herrietan egiten den harrobi lanaren eta goi mailako kirola daramaten enpresen artean hutsunea dagoela azaldu du Lizasok: "Ez dago formaziozko diru-ordainik ez ezer. Pilotariak sei urte dituenetik hasita lanketa osoa klubek egiten dute, baina 16-17 urterekin pilotari ona bada enpresa etorriko da, jokalaria gurasoari deituko dio (tira, orain formalizatzen ari da gaia eta agian klubari ere deituko dio abisatzeko), hartuko du jokalaria eta agur, bukatu da harremana. Eta aurretik egindakoa lan hori dena non geratzen da?". Luisak gehitu duenez, "pilotaren sustraietara ez da iristen enpresetan mugitzen den diruaren izpirik ere".

EMAKUMEAK PALAZ, ETA NOIZKO ESKUZ?

Neskak pilotan gehiago aritzea da Behar Zanaren plan estrategikoaren beste helburuetako bat. Lizasoren ustez, "emakumeen parte-hartzea handitzeko erreferenteak behar dira". Erreferenteak lantzeko, Behar Zanak argi du begiraleetan ere emakumeak bermatu behar direla. Pilota modalitateek generoa dutela pentsa daiteke, nesketan pala baita nagusi. Lizasok garraztasunez kontatu du: "Lau neska soilik izan ditugu ikasturte honetan eskuz aritu direnak. Arazo orokorra da, aurtun gertatu zaigu alebinetan Gipuzkoako txapelketa jokatzeke gure kide bati beste herri bateko bikotea bilatu diogula, eta Gipuzkoa osoan izena eman zuen bikote bakarra izan zela. Telebistan emakume pilotaren irudi bat ematen da eta oinarrian dagoen errealitatea beste bat da". Luisak gehitu du: "Telebistan ematen den irudi horrek erreferenteak sortzeko balio dezake, baina zulo bat dago erakusten den argazkitik errealitatera, irudi hori ez da erreala". Azken orduko berri on bat jaso du, ordea, Behar Zanak: eskuz eta paletaz punta-puntan dabilzan bost

emakume hurrengo ikasturtean talde honetan arituko dira: Miren Larrarte, Miriam Arrillaga, Itsaso Erasun, Garazi Eizmendi eta Nahia Eizmendi. Ea erreferente indartsu hauek baliogarri diren herriko neskak pilotan izen ematera animatzeko.

Baina ikasturte honetan ere izan da astero entrenatu duen emakumerik: helduen pala taldea da eta hauen txapelketa azkarra antolatzen du klubak. "12-16 emakume ari dira egun palaz, gehiago ere izan dira. Eta adinez klubeko helduenak dira, 40 urtetik gora dituzte". Talde honen helburua ez da lehiatzea, aisialdian kirola elkarrekin egitea baizik, eta haien buruarentzat denbora tarte bat ateratzea: gaurko gizartean oraindik asko kostatzen dena, haurren zaintzaren karga amen bizkar baitago sarri. Behar Zana elkarteak oso positibo baloratzen du talde hau, herrian erreferenteak sortzeko eta kirola egiteko beste modu batzuk ere badaudela erakusteko.

BAILARAKO HERRIAK EZ HUSTU

Villabona Aiztondo bailarako hirigunea da. Eskualde honetan herri oso txikiak daude baina bakoitzak du bere pilota taldea eta zaletasun handia dago. Lizasori galdetu diogu nola zaindu behar den lurralde oreka: "Duela 10-12 urte hitzarmen bat sinatzeko bildu ginen bailarako udaletako kirol zinegotziak eta garai hartan zeuden pilota taldeetako arduradunak. Hitzarmen horrek jaso-





tzen zuen herri bakoitzak bere pilota eskola eduki behar zuela eta pilotariak beraien herrian entrenatu behar zutela. Arrazoia da ezin ditugula herriak hustu. Adunako pilotari batek, Larraulgoak, Alkizakoak, Zizurkilgoak, Behar Zanan entrenatzeagatik hustu egingo badu bere herriko pilota taldea, ez da positiboa pilotarentzako. Gero iritsiko da une bat, halabeharrez, elkartuko direna: batetik, adin bat iristen da kirol-maila nabarmen bereizten dena eta bestetik, ume batzuk bakartuta geratzen dira taldekideren batek pilota utzi duelako. Hauek kilometro pila egin beharrean beste bailara batera entrenatzera joateko, Aiztondo bailarakoen artean antolatzea da asmoa: ziurrenik, orain gertatzen den gisara, adinarekin Behar Zanan elkartuko dira baina helburua da bakoitza bere herrian aritzea, ahal den neurrian; horrela, herri bakoitzean jarraikortasuna egotea lortuko genuke".

HELBURUA GOZATZEN LUZE JARRAITZEA DENEAN

Lizaso eta Luisarekin hizketan ari garen bitartean, elkarte gastronomikoko mahaira gehitu dira pixkanaka Behar Zana elkarteko pilotari andana: Joxi Lopetegui xare jokalaria, Miriam Arrillaga pilotaria eta pala entrenatzailea, Jon Urbieteta eta Jon Erasun pilotariak, Iñaki Otaegi errebote jokalaria eta Eneko Maiz trinketan zein ezker paretan eskuz aritzen den jokalaria eta Behar Zanak entrenatzaile esanguratsuenetakoa. Bizitzako sasoi ezberdinetan daude, pilota modalitate ezberdinak jorratzen dituzte, eta bakoitzak du pilota munduan bere bidea egin. Gaztetan profesional izatea

da pilotari askoren ametsa, baina hortik kanpo ere badela pilotan aritzeko motiborik azaldu digute.

Jon Urbietaren hitzetan, "16-18 urterekin beti begiratzen diozu profesionalek igotzeko aukerari. Eta ez bada hori iristen, askok adin horretan utzi egiten du ilusia galduta eta pilotan jokatze gogorik ez duela esanaz. Baina ez du zertan beti hala izan behar. 25-30 urtetik aurrera ere pilotan ederki ibili daiteke, amaiera datarik gabe". Pilotan luze irauteko lagunartea izatea gako dela diote eta horretan laguntzen du Behar Zana bezalako elkarte batek: "Bakarrik geratzen ez zaren bitartean, aurrera! Behar Zanan talde polita gaude eta astean bitan elkartzen gara gure artean entrenatzeko. Giro horrek ere asko balio du" adierazi du Urbietak.

Jon Erasunek izan du aukera profesional izateko ametsa betetzeko: "Ni gaztetatik saiatu nintzen profesionala izateko lan egiten: nire bizia horretara bideratzen nuen, entrenamenduak horra begira egiten nituen, eskolan ez nintzen oso abila eta nire ahalegin denak horretan jarri nituen... Profesionalen bost urte pasatzeko adina egin dut. Bost urte hauetan momentu onak eta txarrak izan dira. Bolada batzuetan partida gutxi jokatuz, eta partida txarrak ere asko egin ditut. Baina berriz ere aukera edukiko banu, dudarik gabe berriz ere debutatuko nuke. Nik uste pilotari batentzako gauza ederra dela profesional mailan aritzea, hortik bizitzeko aukera izatea, gustatzen zaizuna eginez". Pilotan ari diren txikiei mezu hau eman die: "Txikitan, maisu bat edo bestea izan, zera da garrantzitsuena: pilota hartu eta



frontoian orduak sartzea. Ez dago beste sekreturik. Egun, figura izateko, berezko asko behar da, baina ordu asko sartzen dituenak ziur zerbait egingo duela pilotan. Txikiei esango nieke pilota gustatzen bazaie jarraitzeko eta aukera baldin badute debutatzeko. Esperientzia oso ona da. Eta aukerarik ez baldin badute, pilota beste era batera ere joka daitekeela, dena ez dela profesional mundua, eta egia esan, ez duzula bizia konpontzen profesionaletan ibilita". Erasunek berak pilotan jokatzen jarraitzen du, profesional izateari utzi badio ere.

Miriam Arrillagak baloratzen du pilotak ematen diona: "Beste modalitateak probatu, herri ezberdinetara joan, jendea ezagutu... horrek denak batzen gaitu. Ea urte luzetan hala egin deza-kegun". Iparraldeko herriak eta jendea ezagutzeko aukera eman die pilotak mugaz bestalde indar handiagoa duten modalitateetan ari diren xare jokalaria Joxi Lopetegiri, trinketan ari den Eneko Maizi eta errebotean diharduen Iñaki Otaegiri. Azaldu dute modalitate horietan maila eta intentsitate handiagoa dagoela Iparraldean, jendeak gehiago jarraitzen ditu partidak, telebistaz ere gehiago ematen dituzte...

BADATOR ERREBOTEAREN FESTA BEREZIA

"Bote luzea, laxoa eta errebotea dira pilota joko zaharrenak" azaldu du Luisak. Villabona erreboteagatik da ezaguna, historiako jokalaria mitikoena Pedro Yarza "Villabonako besamotza" izan baitzen, 1861ean jaioa. Euskarazko "berez behar Villabonakoa" esamoldeak ere lotzen du berezko trebezia herri honekin.

Errebotea talde kirola da: bost kidek osatzen dute taldea. EAEn hiru errebote talde baino ez daudenez, Behar Zanak taldeak Iparraldeko taldeekin jokatzen ditu partida asko. Ohitura da partidak igande goizean hasi eta bazkalorduan bukatzea eta ondoren aurkariei jateko zer-bait ematea, beraz, ohikoa da bi taldeek eta epaileek elkarrekin bazkaltzea.

Joko honen beste bitxikeria bat da eguraldiaren menpe dagoela, hau da, non eta Euskal Herrian, ezin dela jokatu euria ari duenean: beraz, eguraldiaren arabera aldatzen dute hitzordua eta behin partida hasitakoan euria hasten badu, eten egiten da eta atertutakoan jarraitu (ordu batzuk geroago edo beste egun batean). Eguraldiaren menpe egonik, udaberri-udan egi-

ten dira entrenamenduak eta partidak.

Egun ere erreboteak Villabonako herrian presentzia handia du: errebote plaza da udaletxe aurrean dagoena eta bertan entrenatzen dutenean ikus-kizun bihurtzen da ostegun buruzuri batez kalean dabilen herritarrarentzat. Zazpi lagun dabilta helduen errebote taldean, "hau da, jokatzeko behar diren bostak eta bi gehiago; talde justu xamarra, egoera ez da mantentzeko adinatik askoz goragokoa. Bi ume talde badira, ea horiek jarraipena ematen dioten", esan du Iñaki Otaegik.

Behar Zanaren urteurrenaren barruan, errebotearen festa oso berezi bat egingo dute ekainaren 25ean, "historikoa", Lizasok azaldu duenez: "1975ean

bost errebote talde osatu zituzten Villabonako pilotariek eta aurtien lau talde aterako ditugu eta gaur egun hori lortzea ez da marka makala: lanketa handia egin dugu lehenago errebotean jokatu duten pilotariak parte hartzera animatzeko; entrenatzen aritu dira eta plazan pilota hotsa entzun da". Luisa ere irrikitan dago: "Behar Zanak pilotari eta pilotari ohiak egun batean biltzea oso berezia izango da". Arituko diren gazteenek 25 urteren bueltan dituzte eta zaharrenek 45 urte inguru.

Ekainaren 25eko ekitaldi horretarako irrikitan badaude ere, urtean zehar ez dira geldirik egon Behar Zana elkarte-ko kideak, eta 75. urteurrena ospatzeko hainbat ekimen berezi egin dituzte:



“ 10 urterekin hasi nintzen joko garbian entrenatzen eta gaurdaino jarraitu dut pilota munduan murgilduta. Egun haurren joko garbiko entrenatzailea naiz. Joko garbian eta errebotean jokatzen dut, baita paleta gomaz eta larruz ere. Txapelketetan parte hartzea gogoko dut oso. Nire helburua pilotaz gozatzea da eta gure baloreak ondorengoei transmititzea kirol honetan jarraituz”.

Aratz Luisa

“ Umetan hasi nintzen eskuz jokatzen baina 11 urterekin utzi behar izan nion, neska talderik ez zegoelako eta palaz aritu nintzen. duela 5 urte ekin diot berriz eskuz. Egun 21 urte ditut eta Behar Zana elkartearen begirale naiz: haurrekin eta emakume helduen pala taldean. Pilotari modura, orain artean Anoetako klubean aritu naiz eta datorren ikasturtean Behar Zanan hasiko naiz. Oraindik gora egiteko urte batzuk geratzen zaizkit: partidetan eta entrenamenduetan gustura nabil, ilusioz. Ea urte luzez horrela jarraitzen dugun”.

Miriam arrillaga

“ Xarean Iruran hasi nintzen eta Behar Zanan 25 urte baino gehiago daramatzat. beste bi-hiru urte egiten baditut, nahikoa. Pilotak aukera eman dit leku eta jende ezberdinak ezagutzeko eta horrekin geratzen naiz. Munduko txapelketetan jokatu dut eta han ezagutu nuen 25 urtez xareko nire bikotea izan den Mikel Funosas, Makeakoa: entrenamenduak eta partidak mugaz bi aldeetara egiten ditugu. Semeak xarez jokatzen du Iruran eta alabak palaz Behar Zanan. Xareko infantil mailan gutxi direnez, aurtien nagusiok nahastu gara gaztetxoekin Gipuzkoako txapelketa jokatzeko eta txapela ekarri dugu etxera”.

Joxi Lopetegi

“ Behar Zanan asteazkeneko elkartzeko gara gure artean eskuz entrenatzeko. Giro horrek asko balio du. Bote luzean aritzeko Oiarzungo taldean biltzen naiz. Afizionatu munduan nabil eta eskuz ia astebururo izaten ditugu partidak; bote luzean edo paxakan, berriz, udan. Nire helburua ahal den bitartean partidak jokatzen eta asteazkenetako bilkurari eusten jarraitzea da”.

Jon Urbietta

esaterako, herriko plazan joko-garbi eta esku-pilota jokatu bitartean berdel jatea; bertso-pilota Mikel Goñi, Oinatz Bengoe-txea, Jon Erasun eta elkarteko pilotarie-kin; baita inoiz egindako euskal pilota maratoni luzeena ere, zeinetan 25 ordutik gora osatu zituzten pilotari denen artean, hamabi modalitate jokatzuz eta 6 urtetik 70 urtez gorakoetarako adin-tarteak batuz (lortutako dirua Aspanogi elkartearentzat izan zen).

UNITATE DIDAKTIKOA ETA UDALEKUAK

Aurten urteurren ekitaldi bereziek bete dute Behar Zanaren egitasmoa, baina lehendik ere mugimendu handia du elkartek: eguneroko entrenamenduak,

txapelketak (Antton Pebet memoriala, Santio txapelketak, Emakumeen txapelketa azkarrak...), umeentzako topaketak eta partida mordoa antolatzeaz gain, pilota kulturalki lantzeko unitate didaktikoa egin du. Udalak finantzatu zuen eskolei eman zitzaizen kirol materiala: joko garbian jolasteko plastikozko zestak, palak eta esku-pilotak. Eta herriko ikastetxe denek erabiltzen dituzte materiala eta unitate didaktikoa. Honen egile Lizasok azaldu duenez, "lehendik badira pilotari buruzko unitate didaktikoak, Ikas Pilotak egindakoa, adibidez, eta altxor bat dira. Guk gure herrira begirakoa egin dugu. Hasteko, Hezkuntzako curriculumak dio soinketako klaseetan euskal pilota landu egin behar dela. Hortik tiraka, unitate

didaktiko honetan uztartzen da pilota eskolako hainbat alorrekin: soinketako klasean pilota jolasak egiten dira, horietako asko kooperatiboak; Villabonako pilotaren historia azaltzen da era ulerterra-zean; herriko pilotari historiko ezagunak (*Besamotza*, adibidez) hizkuntzarekin batera lantzen dira, esaterako, haiei buruzko deskribapenen bidez ezagutuko dituzte ikasleek; arte tailerrean Villabonako erreboten plazen maketa egiteko proposamena dakar...".

Behar Zanak antolatutako beste ekimen berezi bat, pilota udalekuak dira. Uztaila honetan bigarren urtez, goizero frontoian elkartuko dira gaztetxoak, begiraleen laguntzaz pilotako modalitate ezberdinetan eta jolasetan aritzeko. ●



“ Behar Zana elkartean 8 urterekin hasi eta 18 urtera arte aritu nintzen eskuz. Egun errebotean jokatzen dut. Nire helburua da gure talde hau mantentzea eta horretarako umeak behar dira. Beraz, atzetik datozen gazteek lekua hartzen duten arte jarraituko dut zubi lan horiek egiten eta bukatzen denean epaile, edo sukaldean, edo behar denean baina hor izango gara”.

Iñaki Otaegi

“ Umetan Zizurkilen hasi nintzen pilotan, Behar Zanan alebinetan aritu nintzen eta berriz ere Zizurkilera itzuli nintzen. Profesionaletan bost urte egin ditut eta horrekin pozik. Orain bukatu zait eta berriz ere Behar Zanan nabil. 25 urte ditut eta jarraitzen dut herriko festetan partidak jokatzen. Beste maila batean, noski, baina ahal den bitartean jarraituko dut: gustuko dut entrenatzera etortzea, giro ederrean ibili, izerdi pixka bat atera, otordu batzuk elkarrekin egitea...”.

Jon Erasun

“ Trinketan kasualitatez hasi nintzen: klubeko batek min hartu zuen eta bere ordeztu Gipuzkoako txapelketa jokatu nuen. Irabazi genuen, entrenatzen jarraitu genuen eta txapelketetan emaitza onak etorri ziren... trinketan zentratzea erabaki nuen, ezker paretan ere jokatzen dudana arren. Aurten afizionatu mailan aritu naiz Iparraldean eta astero entrenatu dut profionalekin Azkainen edo Baionan, Xala izanik entrenatzaile. Munduko Txapelketan finalera iritsia naiz; aurten Biarritzen jokatuko da eta han izango gara”.

Eneko Maiz

“ Behar Zanan 9-10 urtetatik esku pilotan aritu naiz beti: ezker paretan nagusiki, baina trinketan eta pasakan ere jokatzen dut. Errebotean, plaza librean eta bote luzean ere bai tarteka. 38 urte ditut eta urte luzez jarraitu nahi nuke. Behar Zana elkartean duela 20 urte entrenatzaile nintzen eta pixkanaka ardura handiagoak hartzen joan naiz. Hainbat pilota talderi lagundu izan diet paralekoki, izan ere, pilota sustatu, zabaldu eta indartzea da nire helburua eta horretarako proiektuak antolatzen nabil azken urte luzeetan”.

Iñaki Lizaso



Estatuak ez luke arautu behar familiak nolakoa izan behar duen, askotariko ereduak babestu baizik”

Gizon ez-heterosexualen aitatasun desira ikertu du Borja Muñoz Arrastia sexologoak. Familia nuklearraren eredu hertsia errepikatu baino, umeak hazteko alternatiba komunitarioak sendotzea aldarrikatu du EHGAMEko kideak.

 JUNE FERNANDEZ  DANI BLANCO

Marika naiz eta aita izan nahi dut”. Esaldi horrekin hasi du Borja Muñoz Arrastia Gasteizko Udalaren ikerketa feministarako bekarekin prestatu duen lana: *Gizon ez-heterosexualen desira ez-patriarkalei iruditeriak irekitzen*. Psikologo eta sexologo honek hainbat udalletako sexu orientazio zerbitzuetan lan egiten du, baita eskoletan sexu heziketa hitzaldiak eman ere. Berriki sortu den EHGA Gorbeialdea+ taldean militatzen du, eta familia ereduei buruzko lan ildoan abian jarri dute.

Mundu marikan muturreko bi joera sumatu ditu: antinatalista eta haurdunaldi subrogatuaren aldekoa. Aktibista honen hautua, ordea, aitatasun desira asetzeko bide komunitario ez merkan-

tilizatuak aldarrikatzea da. Diskurtso kritikoa sendotzeko, ezinbestekoa izan du ikuspegi feminista. Bereziki, Sara Lafuente Funes soziologoaren *Mercados reproductivos* (Merkatu erreproduktiboak) liburua eta Gracia Trujillo eta Lola Roblesen *Un diálogo sobre gestión subrogada* (Haurdunaldi subrogatuaren inguruko elkarriketa bat) gomendatu ditu.

Orain dela gutxi arte, inork ez zuen espero LGTB pertsonok umeak ekartzea, eta horrek agente sozialetik askatu gaitu. Erreferenteak izateak eragina du desiran?

Denetarik gertatzen da. Elkarriketatutudan gizonen artean, batzuek txikitatiki izan dute aita izateko desira, nahiz eta erreferenterik ez izan, eta frustrazio osoz bizi izan dute. Beste batzuei *martzianada* iruditzen zitzaion umeak izatearen ideia, baina helduaroan piztu zaie gogo, esaterako bikote lagun batek semena eskatu eta proiektuan parte hartzeko aukera eman dienean. Interneten milaka orrialde daude amatasun senari buruzkoak. Aldiz, aitatasun intuituari buruzkoak oso berriak dira, eta galdera moduan: existitzen al da? Nire ustez, ikuspegi sexologiko eta feministatik, prozesu biografiko konplexua ematen da. Badaude oztopo guztien gainetik aitatasun desirari eutsi dioten marikak. Horrek esan nahi du intuitu naturala dutela? Ez dut uste.

Aitatasun desira aldarrikatzen duzu, baina zalantzan jartzen duzu hori gauzatzea eskubidea denik.

Arriskutsua da defendatzea guraso izatea eskubidea dela. Prozesu subjektibo baten emaitza da desirak eta beharrak nahastea. Beharrak direla onartzen dugun heinean, eskubide bihurtzen dira, eta orduan statuak bermatu behar ditu. Horrek arazo politiko bat dakar. Horregatik nahiago dut desira modu kritiko batean aztertzea eta, ondoren, komunitatea sortzeko erabil dezakegula aldarrikatzea, ez soilik proiektu indibidualistak gauzatzeko.

Haurdunaldi subrogatua defendatzen duen hainbaten ustez, diskriminatzailea da Osakidetza bikote lesbianoari doako tratamenduak eskaintzea eta, aldiz, gayen ugalketa desirari ez erantzutea.

Oso desberdina da semena behar izatea ala umea sabelean haziko duen pertsona bat behar izatea. Ernaltzeko gaitasuna ez dauka pertsonak, haziak baizik. Hau da, norbait intseminatu daiteke hazi horren “jabea” jakinaren gainean egon barik. Aldiz, ernaldia gorputzaren barruan gertatzen da eta, hortaz, haurdunari gertatzen zaio; ez da labe bat. Era berean, ezin dugu alderatu esperma ematea obuluen donazioarekin [haurdunaldi subrogatuaren beharrezkoa dena]. Semena masturbazioaren bidez ateratzen da, egun bateko kontua da eta



ez du albo-kalterik. Obuluak ateratzea, ordea, prozesu luzea, mingarria eta inbaditzailea da.

LGBTB pertsonon ugaltze-eskubideen alde egiteko, “antzutasun konstituzionala” kontzeptua asmatu da. Zer iruditzen zaizu?

Bollerak eta ama bakarrak lagundutako ugalketatik baztertze esan da gizonen bikote eza ez dela antzutasun ara-

zo bat. Irizpide horri erantzuteko argudioa izan da LGTB pertsonok antzutasun konstituzionala dugula, ezin ditugulako gure bikoteetan sexu-harreman ugalkorrak izan. Baina diskurtso hori problematikoa da, ontzat ematen duelako bikotea dela ugalketarako esparru bakarra. Marika eta bollerok badugu umeak ekartzeko gaitasuna, bikotetik kanpo edo harago egiten badugu. Gainera, LGTB siglen barruan askotariko errea-

litateak daude: esaterako, marika zis bat eta marika trans bat bikote badira, non dago antzutasun konstituzionala?

Lagundutako ugalketaren industriak LGTB komunitatea erabiltzen du, garestiak diren edota arazo bioetikoak dituzten tratamenduak onartzeko eta komertzializatzeko. Badirudi guretzat asmatu dituzte-la haurdunaldi subrogatuak, nahiz eta

Garenaz harro



gayak erabiltzaileen gutxiengoa izan. Haurdunaldi subrogatuen legeztatzea ez da mugimendu marikaren aldarrikapena izan; gay dirudun gutxi batzuk sartu dira defendatzera, haien ametsa betetzeko panazea dela saldu dietelako. Gai konplexua da; ume horiek hazten direnean haien bizitza aldarrikatuko dute: “Nire gurasoak dira eta ni hemen nago”. Horregatik, tentuz eztabaidatu behar dugu. Nire aldarria zera da: goazen gure proiektuak garatzera, ahal dela, estatu, merkatu eta teknologia barik.

Zer iritzi dute zure elkarrizketatuek haurdunaldi subrogatuei buruz?

Denak agertu dira kontra, oso modu adierazkorrean. Batzuek transfeminismoarekin lotura daukate, baina beste batzuk ez daude politizatuta eta, hala ere, denek esan dute ezinezkoa dela kapitalismo basatiaren testuinguruan inplikatu guztien eskubideak bermatzea. Bakar batek esan du onargarria irudituko litzaiokeela, modu oso kontrolatuan bideratuko balitz, kudeaketa publikoaren bidez, diru truke barik, eta emakumeen eskubideak bermatuz. Hau da, haien kontrako jarrera ez datza ikuspegi moralista edo esentzialista batean, baizik eta ikuspegi antikapitalistan.

Adopzioa da umeak hazteko dugun beste bide bat. Esango nuke jendartearen idealizatuta dagoela, ez dituztela adopzio sistemaren oztopoak edota zailtasunak ezagutzen. Zer adierazi dute elkarrizketatuek?

Oso modu kritikoa agertu dira batzuk; batez ere nazioarteko adopzioan ematen diren umeen istorioei buruzko kezkek dituzte. Gainera, nazioarteko adopzioa oso mugatuta dago bikote homosexualentzat. Adopzioen erdigunean umeen beharrak egon behar dira: jada ez dira umeak bilatzen gurasotasun desira asetzeko, baizik eta etxeak bilatzen dira guraso gabeko umeentzat. Elkarrizketatu batek familia harrera defendatu du...

Baina harrera sistemaren helburua da umea bere jatorrizko familiarekin bueltatzea, baldintza egokiak ematen direnean.

Horregatik, elkarrizketatuak esaten du inork ez dizkizula umeak ematen ezta kentzen ere, haurrak ez direlako ondasunak, ezta gure gorputzetik sortu direnean ere. Beste elkarrizketatu baten iritziz, harrerako tutorea izateak ez zaitu



Ez badugu jarraitzen
heterosexualitatetik
datorren eredua, gure
desirak komunitatea
indartzeko balio dezake”

aita bihurtzen, baina aitatasun desirari lekua egiteko bide bat da. Hirugarren batek irakaskuntzaren bidez sublimatu du aitatasun desira. Ikuspegi polita iruditzen zait, komunitateari lotuta dagoelako.

Sistemak bide bakarrera bultzatzen gaituela diozu. Nola izaten zituzten umeak gay eta lesbianek lagundutako ugalketa tekniken aroaren aurretik?

Padres como los demás (Gainontzekoak bezalako gurasoak) izeneko liburuaren arabera, gurasokidetasun proiektuak betidanik existitu dira. Aplikazio digitalen ordez, egunkarietako kontaktu orriak baliatzen zituzten zenbaitek. Nire elkarrizketatu marika batek emakume heterosexual batekin izan du umea eta elkarrekin bizi dira; munduari begira, familia heterosexuala dira. Halako akordioak izan dira historikoki ohikoenak, aldatu dena da lehen *armarizatuak* zeudela eta orain ikusgai direla.

Zer iruditzen zaizkizu gurasokidetasunerako bidelagunak topatzeko aplikazioak?

Ni oso erromantikoa eta teknofoboa naiz! Baina pertsona askorentzat tresna guaia izango da eta, seguruenik, istorio politik sortuko dira, Tinderrekin gertatzen den moduan. Aplikazio horien existentziak frogatzen du badaudela haien proiektuak modu horretan sortu nahi dituzten pertsonak. Heteroek badakite jende asko dagoela munduan haien desira konpartituko duena. Guretzat, ordea, erronka handia da hazkuntza tribu bat sortu nahi duen lagun bat topatzea. Aukera hori ez dago iruditerian eta, hortaz, dena asmatu behar dugu. Hasteko, gure burua eta jendearena konbentzitu behar dugu, posible dela sinesteko. Eskoletara joaten naizenean, ikasleek badakite marikak, bollerak edota transak existitzen direla, baina bikoteei kritika egiten badiezu, edo hirukoteak aipatzen badituzu, nerabeek eskuak burura eramaten dituzte!

Ikerketan adierazi duzu marika batek guraso izan nahi duela esaten duenean, jatorrizko familiaren erreakzioak kontraesankorrak direla: harridura, poza, lotsa, ezinegona...

Armairutik ateratzen garenean, ohikoa da gure familien onarpena partziala izatea: “Ondo da, baina ez diot familia zabalari kontatuko”. Aitzitik, leinua handitzen dugunean, gure senideak armairutik ateratzera behartuak egongo dira aurretik egin ez zutenekin. “Homofobiaren mendekua” deitzen dio elkarrizketatu batek paradoxa horri.

Senideek errazago onartzen dute gure gurasotasuna umearekin lotura genetikoa baldin badugu.

Bai, ikaragarria da. Aldiz, elkarrizketatuen artean inork ez dio ematen garrantzi handirik; haien desira ez datza ugaltzean, umeak heztean baizik. Batek esan du seme-alabak izateak ez zaituela aita bihurtzen, baizik eta umearen aitortzak. Bestetik, aitatasun mota desberdinak izendatzeko terminologia sortzearen aukera aipatu dute zenbaitek. Hala, bi elkarrizketatuk lau gurasoko familia sortu dute, bollera bikote batekin batera. Bakoitza deitzeko modu bat asmatu dute: aita, aito, ama eta txu. Izena badute, baina aitorten legalik ez. Estatuak ez luke arautu behar nolakoak izan behar duten familiekin, baizik eta existitzen diren aukerak aitortu eta babes legala eman.

Aitortza legala ez izateak inguruaren aitortza oztopatzen du?

Bai, aita eta aito diren bikoteari ezagun batek esan die ez direla benetako aitaik, ez dakitela zer den aita izatea, lau pertsonen artean oso erraza delako umeak haztea. Hori esan dienak agian inbidia du, lau gurasoko familia batean inork ez duelako bestelako proiektuak alboratu beharrik. Asko laguntzen dute elkar, komunitatea sortu dute.

Kanadako, AEBetako edota Kolonbiako epaitegien garaipenen bat lortu da halako ereduak onartzeko. Nondik has gaitezke gurean?

Lehenik eta behin, testuinguru bakoitzera egokitu beharko litzateke sistema. Esaterako, onartezina da eskola batean familia bollero bat egotea lehen hezkuntzatik batxilergora arte eta, hala ere, dokumentazioan oraindik "aita" eta "ama"

kategoriak agertzea. Erregistro zibilean aldaketak egin behar dira, argi eta garbi, baina oposizio handia ekarriko du, familia nuklearraren zentralitatea eta pribilegioak zalantzan jarriko dituelako.

Mugimendu lesbofeministan amatasunaren kontrako argudio bat plazaratzen da familia nuklearrak sortzen ditugunean: komunitate bolleroa ahultzen dugula. Ulertzen duzu kezka?

Nik justu kontrakoa aldarrikatzen dut: ez badugu jarraitzen heterosexualitatek datorren eredua, gure desirak komunitatea indartzeko balio dezake. Hau da, nire bikotekidearekin soilik ase ezin dudanez, aliantzak sortuko ditut gertuko bollera edo emakume heteroekin. Sare horien artikulazioak apurtuko du familia nuklearrak dakarren atomizazioa, bakoitza bere etxe barruari begira egotea. Ez dut esaten gaizki dagoela bikotean hezea edo gurasobakarra izatea; nahi dudana iruditeria zabaltzea da. Sexologoa naizen aldetik, ekarpen interesgarria iruditzen zait desira motak desberdintzea: desira erotikoa, desira hedonikoa eta ugalketarako desira. Nahastu daitezke, baina ez derrigorrez, sexu askapen mugimenduak eta feminismoak defendatu dutenez.

Mariken artean nola ematen da gurasotasunari buruzko eztabaida, ematen baldin bada?

Mundu marika nahiko antinatalista da. Errazagoa izan zait ama bibollo edo aita transen diskurtso kritikoak topatzea. Gayen artean diskurtso sutsuenak haurdunaldi subrogatuaren aldekoak dira; familia sortzeko duten eskubidea aldarrikatzen dute, ikuspegi idealizatu eta akritiko batetik, ekintza horien ondorioak aurreikusi barik.

Elkarrizketatu bat aita trans haurduna da. Zer nabarmenduko zenuke bere ekarpenaz?

Gizon transek umeak sabelean hazteko gaitasuna dute, baina gizarteak aukera hori ezabatzen du. Alde batetik, trantsizioa egiteko hartzen diren erabakiek (ebakuntzak, hormonazioa...) ugalketarako gaitasuna baldintzatu dezakete. Hormonak hartzeari utz diezaioke, baina mundu binaristari begira hautu horrek dakarren prezioak aukera baztertzea eraman dezake. Bestetik, haurdunaren iruditeria feministateari lotuta dago. Liburu bat utzi zidan, haurdunaldi *matxote* bat izateko gako umoretsuak ematen dituen: "Garagardo-tripontzia izateko modua izan daiteke!". Pertsona transen ekarpenak asko gustatzen zaizkit, oso baliagarriak direlako jendarte osoarentzat. Izan ere, emakume zis askok ere ez du haurdunaren kanonarekin betetzen.

Ikerketaren hasieran azaldu duzu zure prozesu pertsonalean laguntzeko aukeratu duzula gaia.

Ikerketa honek aukera eman dit nire hausnarketan sakontzeko. Aita izan nahi dut betidanik. Emakumezko bikotekideak nituenean, gogoia presente zegoen. Lanaldi osoko marika izatea erabaki dudanean, dolu moduko bat egin behar izan dut. Pixka bat galduta ibili naiz, erreferenteak behar nituen, eta ikerketari esker topatu ditut. Asko ikasi dut elkarrizketatuen bizipenetatik, eta nituen zalantza zein beldur asko baretu dizkidate. Orain nola gauzatuko dudan aitatasun desira? Ba itxaron beharko dut, nire bikotekideak eta biok eraiki nahi dugun komunitate ereduarekin bat egiten duten lagunak ezagutu arte. ●

E28: ekainak 28


Askapen afektibo-sexualerako Nazioarteko Eguna



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Giza Eskubideak

LGTBIQ+ fobia ez da ongi etorria





Hilma Af Klint, abstrakzioaren ama



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Stockholm (Suedia) 1896. Hilma Af Klint (1862-1944) margolariak eta beste lau lagun artistek boskote bat osatu zuten espiritismo saioak egiteko. Saio horietan oinarrituta, idazketa eta pintura automatikoan jarduten zuten taldekideek. "Goi maisuak" izeneko espirituek esaten omen zieten zer idatzi eta margotu eta, halako batean, saio haietan ikusten zuten mundu espiritualaren irudikatzearen enkargua egin omen zieten. Hilma Af Klint izan zen eskaerari erantzun zion bakarra.

1882 eta 1887 urteen artean, Klint Suediako Arteen Errege Akademian trebatu zen; artean formakuntza akademikoa jaso zuen Europako lehen emakume belaunaldiaren parte izan zen. Akademiak berak Stockholmeko Kungsträdgården auzune bohemioan estudio bat jarri zion bere talentua garatu zezan, eta erretratu nahiz paisaia naturalistak eginez lortu zuen bizibidea.


Baina ustez espirituek eskatu ziotena margotzen hasi zenean, lengoia figuratiboa albo batera utzi zuen Klintek. 1906an *Tenplurako koadroak* izeneko seriea abiatu zuen, eta 1915ean itxiko zuen 193 obrez osatutako sorta. 1916an *Parsifal* seriea egin zuen, eta hurrengo urtean, *Atomo* izeneko koadro horietan guztietan, muturreko berrikuntza ekarri zuen Klintek, begiez ikusten den errealtateari muzin eginez. Bestela esanda, 1906tik aurrera, lengoia abstraktua erabili zuen. 1908an,



Ezkerrean, Hilma Af Klint bere estudioan. Eskuinean, 'Primordial chaos, 16' lana, 1906 eta 1907 artean egindako koadro abstraktu aitzindaria.

Rudolf Steiner ezagutu zuen, Elkarteko Teosofikoko kide nabarmena eta Antroposofiaren sortzailea. Bere lehen obra abstraktuak erakutsi zizkion Steinerri eta hark aholkatu zion lan horiek 50 urtetan ez erakusteko; ez zituzten ulertuko.

Bere obra figuratibo naturalistak erakutsi eta saldu zituen bizi zen artean, baina lan abstrakturik ez. 1944an hil baino lehen, koadro abstraktuak beste 20 urtez ez erakusteko eskatu zuen. Azkenean 42 urte joan ziren, 1986an



argitara eman zituzten arte.

Vasili Kandinskik 1911n idatzi zuen *Espiritualtasuna* artean lana, eta handik aurrera hasi ziren bera, Mondrian eta Malevitx margolan abstraktuak egiten. 1986tik dakigu Hilma Af Klint aurreratu zitzaizela, baina oraindik Kandinski, Mondrian eta Malevitx ditugu lengoia abstraktuaren sortzaileak. Hiru aiten-tzat tokia dago abstrakzioaren gurasoen podiumean, baina ez dago zirrikiturik benetako amarentzat. ●



Gomazko hartzek 100 urte

Gozoki gogorrak ekoizten eta produktu berriak egiteko esperimentatzen bi urte eman eta gero, 1922an, Hans Riegel gozogin alemaniarrak gozoki bigunak egitea lortu zuen. Gertrud emaztearekin batera prestatzen zituen, azukrea eta melaza egosita, eta, gero, bizikletaz banatzen zituzten. Oraindik ere merkaturatzen dauden hainbat gozoki Riegelenak baino zaharragoak dira; esaterako: Hershey's

gozokiak 1900ean iritsi ziren merkatura eta Toblerone txokolatezko barrak, 1908an. Baina Riegelenak izan ziren lehen gominolak. Enpresari izena jartzeko bere izen abizenen lehen letrei, bere hiriaren (Bonn) hasiera erantsi zien: Haribo. Eta gozoki berriei hartz forma ematen bete betean asmatu zuen. Egun, 16 fabrika dauzka enpresak eta eguneko 100 milioi hartz ekoizten ditu. ●

BANAKETA-SISTEMA



DANI BLANCO

ARGIArik freskoenak Ipar Euskal Herriko harpidedunentzat

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Bazen garaia. Eta nahi baino beranduago heldu bada ere, heldu da Ipar Euskal Herriko ARGIAren banaketa hobetu nahi duen sistema bat –aurretik ere egin izan dira saiakerak–. Gure herria zatitzen duen muga administratiboak zailtasun batzuk dakartza ditu aldizkariaren banaketa kudeatzerako garaian, hasteko, banaketa enpresa desberdinekin egin behar baita tratua. Eta interesak, lan egiteko moduak eta tratuak ez dira berdinak, noski.

Hego Euskal Herrian ere nahikoa arazo izaten da Correos enpresarekin, ez baitu beti bermatzen aldizkaria garai iritsiko denik. Beraz, alternatibak sortzen hasiak gara azken aldian. Bi urte daramatzagu zenbait auzo, herri eta hiritan astekaria bizikletaz banatzen, kooperatiba eraldatzaileekin elkarlanean –honen inguruko informazio zehatzagoa

nahi baduzu, ikus ditzakezu 2021eko maiatzean astekarian eta ikus-entzunezko formatuan argitaratu genuen erreportajea–. Eta orain heldu da Ipar Euskal Herriko gure komunitatearentzat hobekuntza nabarmena ekarriko duen aldaketa: egun edo asteak beranduago ailegatzetik, astekaria jasotzen lehenak izango dira.

Makina bat itzuli eginak izango dira aldizkariok –zenbaitetan Madril edo Pariseraino– ARGIAko kideen eskuetara iritsi aitzin. Etxe ondoan egindako produktu bat haraino eramanez, berriz ere bueltan bidaltzeko. Ez dauka zentzu handirik ez ekonomikoki, ezta ekologikoki ere, ez uste?

Zatiketa horren ondorioz iraganean ere ipar euskal herritarrek jasan behar izan dituzte beste kalte batzuk. Adibidez, aldizkaria gehiago ordaindu behar izatea posta zerbitzuak garestiagoak



#Laia

BDS Koop eraldaketa fabrikatzen egiten duen *Laia* aldizkariaren zazpigarren zenbakia iritsi da, ARGIA honekin batera, Bidasoaldeko eta inguruko eskualdeetako kideen etxeetara. Ekimenen berri emateaz gain, beste erreportaje interesgarri batzuk ere badakartza: EHkom telekomunikazio sare publiko-komunitarioaren proiektua; Batura ekonomia sozialeko mapeoa; kontsumo taldeak; kooperazio sozialistaren historia...

Badira bi urte Behe Bidasoan ekonomia sozial eraldatzailea eta lurralde garapena sustatzen dituen BDS Koop-ekin elkarlana abiatu genuela, aurretik genuen harremanaren ondorioz. Horren fruitu da eskualde horretako eta inguruko gure komunitateko jendeak lauhilean behin eskuragarri izatea *Laia* aldizkaria.

direlako. Badira urte batzuk ARGIAk erabaki zuela kostu hori bere egitea, bizilekuaren arabera diskriminaziorik egon ez zedin gure komunitateko kideen artean, izan Atharratzekoa, Zangozakoa edo Trebiñukoa.

Duela aste batzuk, ordea, banaketa-sistema berria jarri dugu martxan: aldizkariak zuzenean La Postek Mugerren duen sailkapen eta banaketa zentro nagusira eramanez eta handik egunean bertan banatzen dira Ipar Euskal Herriko ARGIAren lagunen etxeetara.

Irabazi beharreko beste borroka batzuk ere badira, helbideak euskara hutsen jartzea kasu –lanean ari gara hori ere lortzeko–; baina uste dugu garaia zela zerbitzu hobeago bat eskaintzen hasteko, Iparraldeko ARGIAren komunitateak ematen digun babes eskertzeaz gainera. Espero dugu aldea nabaritutako dutela hemendik aurrera. ●

AZENARIO MOKOFINA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Esan banuen esan nuen. Behin irratsaio batean azenarioa (*Daucus carota*) mokofina zela esan nuen. Lagun bati irrifarrea aterarazi zion; urrutiagoko batek ikusten nauenero gogora ekartzen dit.

Mokofina da bai karrota, bastanaga, pasta-na, pastanada, pastanera, pastanagrea edo azenarioa. Mokofina, ahozuria, mutur-zuria... guztiz fina, alegia. Baratzean ez da errazen etortzen den barazki horietakoa, eta jende askok ezinezkotzat joa dauka. Egutegiko udaberrian eta udan ereiten da, eta oraintxe horien erdi-erdian gaudenez, adoretu eta arnasa eta asmoa hartu eta erein dezagun! Orain ereindakoak udaren amaiera eta udazkena gozatuko dizkigu. Utziz gero,

baita negua ere. Azenarioa jaio eta bizi osoa egingo duen tokian ereiten da. Hurrengo udaberrira arte ez da garatu eta loratuko eta bitarte horretan jan daiteke. Bai, badaiteke, baina zenbat eta gazteagoa samurragoa, ahozuriarentzako azenario mokofina. Ez utzi handi-handi egiten, baldin eta errekorra eskuratu nahi ez baduzu. Lan handia hartu behar duzu horretarako: palanka batekin zuloa zabaltu, loreontzietarako erabiltzen den lur nahasketa harro hori sartu eta zain handia egiten duen barietateren bat erein, bi edo hiru hazi erein eta gero onena utziz bakandu. Astunenaren errekorra AEBetako Minnesotako Otsegoko Christopher Qualleyk du: 10,17 kiloko bat sortu zuen 2017an. Luzeenarena, berriz, Ingalaterrako Malverteko txa-



pelketan neurtu zuten, Joe Athertonek zaindutakoa izan zen eta 6,245 metro neurtzen zuen. Gure etxean ez dugu horrelakorik nahi, ezta? Ez alajainena! Txiki, goxo, xamur horiek ederragoak dira, landu eta ikusteko bezala jateko.

Hemen ondo datorren barietateren bat eskuratzea da onena; Euskal Herriko hazi ekologikoak lantzen dituen Aleka elkarteak eskaintzen dituenak hiru dira: Colmar, Nantesa eta Morada. Hasteko nahikoa.

Azenarioarentzako lur harroa, ura-setzen ez dena, pH neutroa duena (buztinik ez otoi, dio mokofinak) eta eguzki ordu ahalik eta gehien hartzen duen saila aukeratu. Errauts pixka bat nahasi lurrari. Harrotik gutxi badu mausarra edo hondarra ere bai.

Haziak uretan eduki bizpauru egunez beratzen; euri ura edo iturrikkoa bada hobe. Askoz lehenago ernatuko da gero lurrean. Xukatu eta lur, buztin edo hare finarekin nahasi hautseztatutako haziak izan arte. Horrelaxe garbitu gabe ereingo ditugu, asko jota zentimetro bete lurperatuaz. Purrara zabaltu daitezke edo nahi izatera errenkadetan. Purra-purra eginez gero ez asko bota. Edonola ere, gero gaitzak ekiditeko eta hazkundera bermatzeko, bakandu edo miaztu egin behar izaten da saila. Horregatik erein errenkadetan, batetik bestera 10-12 cm utziz eta hazi batetik bestera 8 cm inguru. Honek bakantze lana murrizten du, baina hasieran tarteko belarrak kendu beharra dakar. Gaitzerdi;

hasierako lana baita, eta azenarioaren mastra hazi denean berak hartuko ditu azpian, ilunpetan eta haztea eragotziko die. Lurrari heze eutsi, gutxienez ernatzen den arte. Azenarioak duen arerio nagusia euli bat da (*Psila rosae*). Berak jartzen dizkion arrautzetatik sortzen diren harrek azenarioa bueltan-bueltan jan eta lurrez zikinduta aterako dira. Eulia ez hurbiltzeko aldameneari porrua (*Allium porrum*) edota tipula (*Allium cepa*) jarri. Horiei ere lagunduko die azenarioak, etsai dituzten harrak sortzen dituzten sitsak (*Acrolepiopsis assectella*) uxatuz.

Loreontzian leiho-koskan edo bal-koian, edo baratzean egin azenarioa. Azenario industrialaren eta etxe-koaren arteko aldea dastatuz geu ere mokofindu gaitezen, otoi. ●

ELGETAKO HERRI ESKOLA

HAMAIKETAKO OSASUNTSUAK,
IKASLE GUZTIEN ESKUBIDE

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Urteak dira Euskal Herriko txoko askotan eskola-jantokien ereduaren eta bertako elikaduraren bueltan borrokak martxan direla, horren adibide da Gure Platera, Gure Aukera ekimen zabaldua eta horra batu diren hamaika elkarte. Bazkaria ez da, ordea, eskolan ikasleek egiten duten otordu bakarra: egunero-egunero, hamaiketako izaten dute haur eta gaztetxoek, eta Elgetako Herri Eskolako guraso elkarteak, Bergarako Ereindajaneekin elkarlanean, arreta berezia jarri nahi izan dio otordu horri. Azarotik, hamaiketako osasuntsuak ikasle guztiei bermatzeko proiektua martxan dute bertan: elikagai ekologikoak eta hurbileko ekoizleenak darabiltzate.

ESKOLA EREDU

Goiena Telebistak Elgetako esperientziaren inguruan egindako erreportajearen, eskola bera eredu izatearen garrantziaz mintzatu da Ikuska Lizarralde guraso elkarteak: “Guraso elkartearen baguen lehenagotik zalantza edo kezka gai honen inguruan, eskola desio dugun elikadura motaren eredu izatea nahi dugulako”. Jantokiaren bueltan lanke-

ta egiten ari ziren lehenagotik eskolan, eta horretan ari zirela iritsi zitzaizkien Ereindajanekekin proposamena: zergatik ez hasi hamaiketakoak eraldatzetik? “Haiekin elkarlanean ari gara, eta proiektu honen egunerokotasuneko antolaketa oinarri handi bat dira guretzat”, azaldu du gurasoak.

Egitasmoaren helburuetako bat da lehen sektorea, bertako ekoizpena eta hurbileko kontsumoa bultzatzea, noski, baina ez bakarrik. Izan ere, guraso elkartetik konturatu ziren ikasleek artean desberdintasun handiak zeudela hamaiketakoan, eta elikagai osasuntsuak jateko aukera haur guztiei zabaltzea ere bazen haien asmoa. Eta ez hori bakarrik: sortzen den zabor kopurua murriztea ere bai. “Aurrerapauso garrantzitsuetako bat izan da hondakinak murriztea, batez ere plastikoa”, zioen Goiena Telebistaren Lizarralde.

FRUTA, OGIA ETA OLIO
EKOLOGIKOA

Elikagai horiek dira azarotik Elgetako Herri Eskolan ikasleek egiten dituzten hamaiketako oinarri. Sasoiaren ara-



bera, fruta aldatzen doa, eta ahal dela, hurbileko ekoizleena erabiltzen dute. “Fruta eta olio Ereindajaneke bidez ekartzen ditugu haien ekoizle saretik, sasoiaren sasoiak eta momentuko baliabideen arabera. Ogia, berriz, Iurretako okin batek ekartzen digu”, azaldu du gurasoak. Eskema orokor hori moldagarria da, dena den, eta egun berezietan bertako ekoizleen gazta eta jogurtak ere jarri izan dituzte.

Hobetzeko gauzak egon arren, oro har, proiektuak orain arte izandako ibilbidearekin pozik daude ikasleak, gurasoak eta eskolako langileak. “Oso garrantzitsuak dira horrelako ekimenak, bai eskoletan eta baita eskolaz kanpo, eta ez soilik osasun aldetik begiratuta, ekonomikoki ere bai, herri moduan autonomia irabatzeko”, zioen erreportajearen Patxikobaso baserriko Monika Irazolak, eskola hornitzen duen okinak. ●

“Gure haragia ekologiko gisa ziurtatzeak balioa gehitzen dio, oso atsegina da eta jendeak eskertzen du.”

—
IGNACIO SUESCUN
Abeltzaina, PETILLA ARAGOI

**ETORKIZUNA
EKOLOGIKOA DA
aurrera goaz!**

cpaen.org
navarraecologica.org

“ ”

Batzuetan iruditzen zait kultur hilobiak azalera ekartzen ari garela

Josu Martinez

Gure zinemaren historia osatu digu Josu Martinez (Bilbo, 1986) EHUKo irakasle eta zinemagileak *Irudiz eta euskaraz. Gure hizkuntzaren zinema. Gure zinemaren hizkuntza* (UEU, 2022) liburuan. Gure zinemaren historia petralaren historia ederra argi idazten asmatu du 1956an egindako euskarazko lehen filmaren hariari segika eta tiraka.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Zure liburuaren titulua ez dator alferretan: *Irudiz eta euskaraz. Gure hizkuntzaren zinema. Gure zinemaren hizkuntza*. Horra hizkuntza auzi gure zinemaren historiaren erdian...

Hasteko, esan behar da liburu honetan euskaldunok zinemarekin izan ditugun harremanak kontatzen ditudala. Hitzeko eta irudizko harremanak. Ez dut filmen historia bat egin, kultura zinematografikoaren historia baizik. Besteak beste, zinemaren inguruan eraiki diren diskurtsoak bildu ditut, euskaldunek zinemari egindako harrera, ikuslearen erreakzioa... “Auzia”, esan duzu, eta nik uste munduko herri askok ez bezala, euskaldunak ezin dituela filmak gure hizkuntzan ikusi, edo egunkariak irakurri, adibidez. Eta arrazoi nagusia da ehun eta

hamar urte igaro zirela zinema sortu zenetik gure zinemagileak filmak euskaraz egiten hasi ziren arte.

Zuk diozunez, 2005 arte ez zen euskalduna zinema egiten hasi, baina aurretik ere baziren filmak.

Baina 2005 urtera arteko zinema nahi eta ezina izan zen, zinemaren aitzinean begiak ixtea. Zinemarekin harremanik ez izatea ez ote zen hobe izango ere esan zuten batzuek. Beste batzuek, berriz, “zinema” hitzaren ordeztu beste izenen bat asmatu behar ote genuen. Edo [Piarres] Lartzaabalek esan zuen moduan, euskaldunok teatroa egitera kondenatuta ote geunden, zinema egitera ordeztu. Hainbat kontu erabili zituzten euskaldun haiek, baina ez zuten zinema euskaraz egin.

2005ean beste aro bat hasi zen gure zinemaren historian, *Aupa Etxebeste!* egiteaz batera.

Nolakoa izan da gure zinemaren historia?

Petrala, kar, kar... Koldo Izagirrek bere liburuaren izena eman zionez [*Gure zinemaren historia petrala*, Susa, 1996]. Gure zinemak garapena izan duela esango nuke eta, oro har, tren asko galdu direla. Esango nuke Euskal Herriaren historia bera dela gure zinemarena, edo harekin batera paralelo egin duela bidea. Gure zinemaren historiak gure herriaren historia ulertzeko balio digu. Iragan mendeko 30eko hamarkadan, adibidez, ikusten da zinema egiten ahal zela, baina oso gauza minoritarioa zela, abertzaleen artean ere



euskaldunak gutxi zirela, elizaren pisua ikaragarri handia, XX. mendearen erdialdera egiten ahal ziren gauzak Ipar Euskal Herrian beste inon ez zirela egiten ahal... Ipar Euskal Herrian beste inon ez zirela egiten ahal esan dut, eta horrek balio du ohartzeko euskal kulturaren elementu modernoak Ipar Euskal Herritik heldu direla: zineman, lehen filma; telebistan, lehen saioa; eta gainera, lehen liburuak, lehen kantari modernoak, lehen rock taldea... Nahiz eta gero hori dena Hegoaldean popularizatu zen.

2012an Gure Sor Lekua filmaren kopia aurkitu zenuen Parisen, Andre Madrerren arrastoari segika, eta gure zinemaren hastapenez ere idatzi zenuen tesia. Hantxe da oraingo liburu honen hazia?

Baliteke. Andre Madre hazpandarraren lan hura aurkitu nuenean, esploratzaile sentitu nintzen. Baziren hainbat liburu euskal zinemaz ari zirenak, edo *cine vasco*-aren inguruan, zeren lan denak gaztelaniaz idatziak baitziren, eta akatsez beteak ziren. Ni, aldiz, inork aipatzen ez zituen gauzak aurkitzen ari nintzen etengabe: aipamenak, lekukoak eta filmak. Eta ni ez naiz Sherlock Holmes, eta ez dut aparteko usaimenik ere, baina bilaketa egitekotan, euskal prentsara jo behar nuela iruditu zitzaidan, eta filma Iparraldekoa bada, Iparraldeko euskal prentsari begiratu behar nuela. Xabier Letek kantatzaren zuen hura, ezta? "Periodikuak letuz ilustratzen gera", horixe da, periodikuak letuz egina dago liburu hau, iturrietara joz.

Baina egunkarietako iturriek bestelako iturri batzuetara eraman zintuzten. Ikusleetara, adibidez.

Neure buruari egindako galderetako bat izan zen: "Nork ikusi ahal izan zuen filma?". Erantzuna, berriz: "Jende mordo batek. Manex Pagolak, Xarritonek..." Eta ikusle horien bidez, beste hainbat hari atera zitzaizkidan, eta euskal zinemaren historia artean idatzi gabe zegoela ohartu nintzen, eta halaxe hasi nintzen orduan, eta oraingo lan honetan, berriz, jarraitu egin dut. Liburu honek, ezezaguna den historia ekarri nahiko luke azalera, liburu honetan kontatzen direnak oso ezezagunak dira, eta horixe du funtzioa, haiek azalaraztea.

Gure zinemari buruzko lanik bada, zure hau baino lehenago?
Cine vasco-ri buruzko historiak eginak



“ ” *Euskal Herriaren historia bera da gure zinemarena*

dira, modu inklusiboan, nahi baduzu, non atal bat, edo azpiatala izaten zen beti euskaraz egindako zinemari buruzkoa. Zeren euskarazko filmak beti izan dira apalagoak, diru gutxiagorekin eginak. Liburu honek, hortaz, kameraren objektibo aldaketa dakar. Objektiboaren arabera, gauzak era batera edo bestera ikusten dira, eta objektibo aldaketa horri esker ageri dira liburuan hainbat gauza orain arte aipatzen ez zirenak.

Euskarazko zinema, batetik, euskal zinema edota *cine vasco*-a, berriz, bestetik...

Iragan mendeko 70eko hamarkadan denek esaten zuten euskaraz egin behar zirela filmak. 80ko hamarkadan, filmak euskaraz egitea posible izan zenean, Antton Ezeizak beste inork ez zuen zinema euskaraz egin. Jaurilaritza filmak laguntzen hasi zen lehen garai hartan ere, euskal gobernuak ez zuen euskaraz egiterik eskatzen, kopia bikoiztua entregatzea besterik. Gutxi ziren euskaldunak zinema lanean, edo inor ez; eta, hortaz, ezin euskarazko zinemarik egin.

Kopia bikoiztua entregatu, eta kito, euskararekikoak eginak...

Antton Ezeizak esaten zuen hizkuntzaren auzi hori gaztelaniaz hitz egiten duguenean sortzen dela, eta ados nago. "Euskal zinema"-z aritzea absurdoa da. "Euskal zinema alemanez egina da", beste absurdo bat. Izenak berak esaten du, "euskal zinema", euskaraz egina. Gaztelaniaz ari garenean, "*cine vasco*" esan eta denetarik sartzen ahal da hor, hiritartasunari buruz ere ari baikara. Besteren batek bestelako iritzia badu, aurrera. Ez dut eztabaidarik nahi. Baten batek uste badu gaztelaniaz eginagatik ere bere zinema euskal zinema dela, hor konpon. Norberak nahi duena pentsatu dezala. Baina gauzak asko aldatu dira.

Zer esan nahi duzu?

Etortzen zaizula noizbait eskoziar bat, eta zergatik ez dakidala, film bat egiten duela, euskaraz: *Pikadero*. Eta etortzen dela argentinarrak, eta egiten duela filma euskaraz: *Akelarre*. Eta Eugene Greenek, Parisen bizi den amerikarrak, bi film dituela euskaraz eginak, eta bidean duela hirugarrena. Nik horiek hurbilago sentitzen ditut Bilbon jaioagatik ere Madrilen edo Parisen filmak hango diruarekin, hango aktoreekin egiten dituen zuzendaria baino. Nahiz film bikaina egin, gustatuko zaidana, gainera, baina horrek ez du hizkuntzaren auzia ukatzen. Hala ere, uste dut pasioa kendu behar zaiola auzi horri.

Gure zinemaren historia berandu ari garela idazten esana duzu orain baino lehen.

Gure Sor Lekua bilatzen bi urte geroago hasi izan banintz, ez genukeen film hori izango. Izan ere, bizirik aurkitu nuen Xa-

rriton, bizirik Manex Pagola, eta bizirik, Parisen, Andre Madre egilearen alarguna. Handik bi urtera hilak ziren hirurak. Zenbait arrazoi medio, filma galdua genukeen betiko, eta uste dut bidean horrelako gauza asko galdu dugula. Errekupe-ratu ahal izan ditugun aipu batzuk jaso ditut liburuan, baina ez filmak. Ikerle-rrroak zabalik daude, eta aurkitu beharreko lanak ere hor, zain.

Esate baterako?

Esate baterako, *Bizibidea lantzen*, 1974an Joxemari Iriondok narratutako filma, Luis Iriondoren enkarguz eginga. Liburuan esaten dudanez, filma euskaraz egin zen, eta gero ingelesera eta gaztelaniara bikoiztu. Euskadiko Filmotekara jo eta ezustea! Gordetzen dituzten kopiak ingelesezkoa eta gaztelaniazkoa dira, euskarazkoa desagertua da! Are gehiago, filmotekan ez zekiten film horren jatorrizkoa euskarazkoa zela. Zoaz orain Laboral Kutxara 1974an egin zen dokumental baten arrastoa ateratzera! Luis Iriondoren ar-txi-boetan, beharbada? Batek daki.

Zenbat gauza galdu dira bidean?

Ez dago jakiterik. Luzeurrek [Ander Arzelus, Donostia, 1898 - Baiona, 1949] aipatu zuen garai hartan bazela film batzuk egiteko asmoa; 30eko hamarkadan, alegia. Ez dakit ezer berreskuratuko dugun. *Gure Sor Lekua*-ren kopia soinu-duna agertuko den ere ez dakit. Nire ustez, ez da agertuko. Gauza asko galdu da bidean. Ez dugu biblioteka nazionalik izan... Non da gure historia? Ahozko lekukotzetan, kartoi-kutxetan, ganbaretan, halako euskaltzainaren etxe desordenatuan... Lan hori ez da eginga, eta horrelaxe galtzen ditugu gauzak. Batzuetan pentsatzen dut Aranzadikoen modura ari garela, haiek gorpuzkiak desobiratzen, eta gu kultur hilobiak azalera ekartzen, han eta hemen

hedatu eta barreiatuak dauden kultur zuloak, alegia.

Oso ukitu pertsonala du liburua, ez da ohiko ikerketa hotz eta "objektiboa", hori zernahi dela ere.

Liburuan esaten ditudan ez dira nire iritzi pertsonala besterik. Kasurik gehienetan, behintzat. Lehenengo pertsonan hitz egiten dut, nire ikuspegia eskaintzen dut, ez diot inori ezer inposatu nahi ez katedra ezarri nahi. Liburua ikerlana da, baina are gehiago du saiakeratik, ez da gauza objektibo bat, eta ez du izan nahi. Halaxe ezarri digute: "Objektiboki, euskal zinema da...". Eta nik diot: "Ados, zuk horixe diozu, baina nik besterik pentsatzen dut". Nik ez diot inori ezer esan behar, nik gauza nola ikusten dudana baizik. Nork bere iritzia du, eta izan behar du, eta nork berea defenditu, argudiatu. Nik hainbat datu eman ditut liburuan, eta neure interpretazioak egin ditut. Baliteke besteren batek bestelakoak egitea. Eta halaxe beharko luke, gainera.

“ ”

**Antton Ezeizak esaten
zuen hizkuntzaren
auzia gaztelaniaz
hitz egiten dugunean
sortzen dela**

**Gure zinemaren historiak ari zara
Irudiz eta euskaraz-en, zeu zinemagile
ere bazarela. Erraz bateratu dituzu bi
alderdiak?**

Hein batean. Esate baterako, horregatixe ez dut 2005az geroko aldia aztertu

liburu honetan. Gainera, beste lan bate-rako gaia litzateke hori, zeren 2005az gero, 1896tik 2005era bitartean baino film gehiago egin baitira. Horixe izan dut garai hori epilogoarako uzteko arrazoi-a. Baina bigarren arrazoi-a ere bada, eta ho-rixe da, hain zuzen, epaile eta partaide naizela. Egin nezakeen 2005etik honako historia, baina bazitekeen neure burua aipatu gabe ere hainbat jende nirekin ha-serretzea, kar, kar, eta etsai bat, edo bi, izatea ongi da, baina ez hainbat etsai eta denak aldi berean... Aldi berri horretaz ez aritzeko beste arrazoi bat ere bada, ale-gia, garai hori ez dela bukatu. Mugimen-duan dagoen irudi bat izoztea litzateke hori. Horixe diot hitzaurrean: "Non jarri muga?" Oscar bat lortuko bagenu, Osca-rra lortu arteko garaia mugatzeko aukera genuke, baina gisako mugarririk ezean, ez dakit, bada.

Zinemagile zaitugu...

Nire ustez, bai, kar, kar...

**Gure zinemagintzaren historiari
buruzko liburua badugu, historia
horri buruzko filma egingai da,
haatik.**

Txantxetan esan ohi dut liburuaren hi-tzaurreaz egin lezaketela filma, Katixa Agirreren testu hori oinarri hartuta, ale-gia. Kar, kar... Uste dut hainbat historia dela liburu honetan, hainbat film egin litezkeela, euskal telebistak ere egin le-zakeela telesailik gure zinemaren histo-riako filmak abiapuntu harturik, baina ez naiz ari inori amua botatzen. Uste dut euskal zinemari buruzkoa bezala, beste hainbat kultur adierazpideren inguruan ere egin lezakeela sail bat euskal telebis-tak. Norbaitek bere inspirazioari lagundu nahiko balio eta liburu honetako materia-lak baliatu, eskubideak salduko nizkioke, merke! Kar, kar... ●

Herri aniztasunaz harro

Ekainak 28

**LGTBIQ+ Askapenerako
Nazioarteko Eguna**



OÑATI
dabilen herria

BORDERLINE FABRIKA

ARTEETATIK KOMUNITATE ARTEKO NAHASKETAZ GOZATZEKO GUNEA

Tarte luze batez espazioa eraldatzen ibili ondoren, azkenik, 2021eko martxoan zabaldu zuten Borderline Fabrika; Hendaiaiko geltokiaren albo batean dagoen "lan egin eta topatzeko lekua". Proiektua ezagutzeko asmoz, bertako kide eta bultzatzaile den Ander Fernandezekin egin dugu zita, konta diezagun zer den Borderline Fabrika eta zerk bultzatu zituen Hendaian horrelako ekimen bat abiatzera.

 **GARI GARAIALDE** / *laia* **ALDIZKARIA**

Zer da Borderline fabrika? Nondik dator proiektua?

Hasiera batean, hiru lagunengoko gogoaren ondorioa da Borderline Fabrika. Hendaian elkar-topatzeko gunea bat sortzeko beharra ikusi genuen hiru lagunengoko gogo. Gerora, hiru lagun horiek arte-eszenikoetako jendea izanik, lanerako espazio bat edukitzeko proiektua bilakatu zen. Lanerako espazioak behar genituen, behar ditugu; hasteko, sortzeko gunea baten beharra genuen, artearen inguruan lan egiteko, eta sortutakoa partekatzeko espazio bat. Horretarako taberna bat leku aproposa iruditu zitzaigun. Horrez gain, bulego lanak egiteko espazio bat behar genuen, artista garen arren, bulegoan lan asko egiten baitugu. Hiru horiek biltzen ditu gune honek: bate-tik taberna, sozializatzeko eta sortutako partekatzeko gunea gisa, bestetik praktika-rako toki bat, bai guretzako, lanabes bezala, baina baita transmisio gunea gisa,

tailerrak egiteko eta, azkenik, bulegoak.

Borderline elkarte bat da, duela 5 urte espazio bati begira sortu zen elkarte. Hemen bi ideia edo bide egin zuten topo: Alde batetik, udalak, Mendizolan, Hendaiaiko 6-7 konpainia profesionali bulegoak utzi zizkigun, lehenago aipatu dudak bulego lan horiek egin ahal izateko, eta bertan profesioko jendea elkartzen ginen. Paraleloki, SNCFek eginiko deialdi bati erantzunez Hendaiaiko geltokian dagoen gunea hau ezagutu genuen. SNCFek, Akitania zaharreko tren geltoki ugaritako espazio hutsak *tiers-lieu* edo hirugarren leku formatuko proiektu bilakatzeko deialdia egin zuen, eta espazio baten beharra ikusten genuen hiru lagunek interesgarri ikusi genuen geltokiko espazio hau.

Udalak utzitako bulegoetan lanean ginen jendea elkartzeko eta espazio honi begira proiektu bat aurkeztea bururatu zitzaigun. Proiektua aurkeztu behar izan

genuen, sinesgarri bihurtu, atzean modelo ekonomiko bideragarria genuela frogatu, aurrekontuak, ekipo bat... eta negozioaz luzeen ondoren onartu zigiten proiektua.

Elkartea zabaltzen joan da bidean, deialdi ezberdinak egin genituen, bilera ireki pila bat, gaur egun dagoen lantalea sortu arte. Hala ere, esan behar dugu elkarte lanean aritu dela lokalik edo espaziorik izan ez dugun urteetan ere, eta proiektua bizirik mantendu dugu; bere bidea egin du. Formakuntzak egin ditugu urte hauetan, ekintzak han eta hemen, irrati saioak kalean, antzerkiak, kontzertu txikiak... modu intinerantean, ahal izan dugun moduan, baina aktibo jarraitu dugu.

Espazioa eraldatzeko lanak oso luze joan zaizkigu, atzerapen handiak izan dira arrazoi ezberdinengatik eta mar-txa hartua zuenean, pandemia mundiala etorri zen. *Mal de ojo* antzeko bat izan

dugula esan daiteke, baina, azkenik, iaz amaitu ziren lanak eta gaur egun Borderline Fabrika Hirugarren Leku bat da.

Nola antolatzen da Borderline Fabrika?

Elkartea da. Kooperatiba bilakatzeko ideia dago hasieratik, baina gaur-gaurkoz ez da gauzatu. Antolaketa aldetik, kopresidente talde bat dago, ardura legalak dituen, eta *etxeokak* izena duen talde eragilea dago. Erabakiak *etxeokak* hartzen dituzte, estatutuen arabera, baina beti presidentekideekin elkarlanean egiten dugu.

Gero, beste maila batean bazkideak daude, proiektuari babesa ematen diotenak. Bazkideekin ez dugu nahiko genukeen lanketa egin; babes ekonomikoa ematen diote Fabrikari, baina hausnarketa dugu egiteko, pentsatu beharra dugu ze onura eman bazkideei, nola inplikatu bazkideak proiektuan. Badira

planteamenduak, bazkideek tabernan modu boluntarioan parte har dezaten, ekitaldi ezberdinen antolakuntzan eta kudeaketan inplikatzeko... Jada egin dira halakoak eta egiten dira, baina gehiago zabaldu nahi da.

Hori da organigrama. Gero lantaldeak daude, elkarte guztietan bezala, arlo bakoitzaz arduratzen den lantalde bat. Hilabetero egiten ditugu bilkurak, lantalde guztiak batera, eta asteko bilkura libreak, ahal duena etor dadin. Elkarteko kide ugari *intermitenteak* dira eta horrek aukera ematen digu lana liberatzeko.

Hasieran aipatu duzu, baina zergatik taberna bat? Zer bilatzen zenuten taberna zabaltzearekin?

Alde batetik, uste dugu Hendaian horrelako gune-taberna bat falta zela. Jendeak asko eskertu du taberna zabaltzea eta, bestetik, hasieran aipatu bezala, leku egokia delako sozializatzeko. Hendaia

badu gabezia bat komunitate arteko nahasketari dagokionez. Komunitate ezberdinak daude herrian, oso elkarte indartsuak, baina bakoitza berera doa, oso atomizatuta dago. Komunitateen arteko elkar-trukea egiteko paper aproposa jokatuz dezakeela uste dugu; hutsune hori bete dezakeela. Gainera, nahasketa hori artetik, kulturatik egingo duen tokia da. Hor eragin dezake Borderlinek, komunitate horien nahasketan. Ez da bakarrik zerbezak hartzeko toki bat. Ez du hori izan nahi.

Taberna bat toki egokia da, buila handian, juergan jendea nahasteko, komunikatzeko eta bizipenak elkartrukatzeko, baina baita ere modu lasai batean disfrutatuz, gozatu eta gero horren inguruan hitz egiteko. Emanaldiak eta kultur ekimenak egiteko espazioa da. Bertako kideek, hasierako ideari jarraituz, gure sorkuntzak jendarean erakusteko toki aproposa da.





Gainera, ipar-hego trukaketarako toki estrategikoa da. Bi aldeetako jendea honat ekartzeko, haien arteko tratuak egin eta sareak sortzeko.

Egia da komunitate nahasketa horretarako egokia ematen duela tren geltoki batek.

Bai, tren geltoki bat komunitate-arteko nahasketarako oso interesgarria da. Kontzeptu gisa, pasabidearen ideia oso erakargarria egin zitzaigun hasieratik. Jendea atzera eta aurrera ibiltzen da hemen, ez euskaldunak bakarrik, aldi berean urrutiko jendea ere badago, Normandia-ko jendea pasatzen da bertatik, ingelesak, Andaluzak... Portugesak ere ugari; mundu guztiak ezagutzen du Hendaia-ko tren geltokia. Topoa ere bertara iristen da.

Gainera, ez da geltokia bakarrik. Guk argi dugu auzoan kokatuta gaudela eta garrantzi handia ematen diogu inguruari. Bertatik eta bertarako egiten dugu lan, auzoari begira. Hasiera-hasieratik, oraindik gune honetan lanean hasi aurretik, ekintza artistikoak egin izan ditugu auzoan, auzoko jendearen etxeetan, auzoaren memoria berreskuratzeko lanak

egin dira, zirkuitu artistikoak, ikuskizunak ekarri dira auzora. Asmoa da ingurua habitatu eta espazioa eta auzoa bizitzea, auzoan bizitzea. Bai eta kanpotik jendea hona ekartzea ere.

Tabernaren espazioaz gain, bulegoak eta lan elkartuko gune bat antolatu duze. Nori zuzenduta dago coworkina?

Ez dakigu oso ondo, ez dugu definitu. Guk eskaintza bat argitaratu dugu, eta eskaintza horretan ondo txertatzen den edonorentzako izan daiteke aproposa. Ez du zertan arte edo kultur munduko jendea izan behar. Suposatzen dugu, naturalki, arte munduko jendea hurbilduko dela, baina guk ez dugu horretara mugatuko. Interesa duen edonorentzako dago irekita.

Aipatu duzu formakuntza saioak egin dituzuela. Zertan da hori?

Orain arte modu puntualean egin izan dira formakuntza tailerrak, baina asmoa da modu jarraian antolatzeke. Nahiko genuke astero izatea formakuntza tailerrak. Hori guztia antolatzen hasi beharko

dugu, orain makinaria martxan jartzen ari dira horretaz arduratzen direnak. Gaur gaurkoz maila ezberdinetako Tango ikastaroak daude, zirkuitu tailerra izan da haur eta gurasoentzat, eta profesionalentzako ikastaro trinkoak egin nahi dira, zirkuitu sorkuntzarako formazioak, zirkuitu dramaturgia tailerra Roberto Magroren... Baina gazteentzako modu jarraian antolatzen hasi nahiko genuke. Boluntarioak izanik, gauzak ahal direnean egiten ditugu, beste erritmo bat eraman behar dugu. Pazientzia izaten ikasi dugu eta hala ibili behar dugu.

Zein toki du euskarak Borderline Fabrika?

Borderline Fabrika elkartearen erdi eta erdi gara euskaraz dakigunak eta ez dakigunak, baina badago euskararekiko sentsibiltate eta gogoia. Badakigu, sarri, gogotik edo asmotik praktikara salto bat egoten dela, baina ezin dugu deus egin, baizik eta jendeari ulertzeko eta praktikatzeko gogoia piztu. Elkarartearen sorrerako manifestu artistikoan adierazi zen euskarari garrantzia emango zitzaioala. Barnera begira, ez dugu bilerak euskaraz



egiteko gaitasunik, baina kanpora begira, jarduera guztietan euskara lehenesten da.

Lehentxeago hitz egin duzu ipar-hego harremanari buruz. Ba al du Bordelinek mugaz gaindi eragiteko gogorik?

Bai noski, gogoia bai. Borderlinek mugaz gaindi lan egin nahi du eta eragin nahi du. Mugaren bi aldetara begira lan egin nahi badugu ere, argi dugu ez dela erraza mugaz gaindi jardutea. Bakoitzak bere ingurua du eta hizkuntzak ere badu eragina. Gainera, muga geografikoetan baino, muga kulturaletan edo gizarte-multzoen arteko mugetan ere eragin nahiko genuke; lehen esan bezala, muga guztiak puskatu nahiko genituzke, baina ez gara iristen. Azkenean funtzionatzen duten gauzak egingo ditugu. Borderlineko kideen intereserako gauzak egingo dira eta gauza horiek komunikatzen eta zabaltzen saiatu, pentsatuaz jende gehiagori interesatuko zaiola. Gogoia badugu mugak hautsi eta jendea erakartzekoa, baina ez dakit zein den bidea, ez da erraza asmatzea norengana jo. Hain da zabala gizarte! Beraz, erantzuna litzateke bai, gogoia bai, baina ez dakigu nola. ●

HIRUGARREN LEKUAK

Komunitate-eraikuntzan, *hirugarren lekua* ohiko bi gizarte-inguruneetatik bereizita dagoen ingurune soziala da. Norberaren etxea litzateke lehen tokia eta lantokia, jendeak denbora gehien pasatzen duen esparrua, litzateke bigarren tokia (mugikortasun triangeluarrei eta pendularrei lotutako kontzeptua da). Ray Oldenburg hiri-soziologo estatubatuarrek asmatu zuen *Hirugarren leku* terminoa eta *Celebrating The Third Place* eta *Great Good Place* liburuetan jardun zuen, sakon, bilgune publiko informaleen garrantziaz.

Oldenburgen hitzetan, *hirugarren lekuak* garrantzitsuak dira gizarte zibilarrentzat, demokraziarentzat, konpromiso zibikoarentzat, eta espazioaz jabetzeko eta partekatzeko beste moduak ahalbidetzen dituzte. Gizabanakoak elkartu, bildu eta modu informalean bizipenak truka daitezkeen eremuak dira. Osagai osagarritzat hartzen da, komunitatearen bizitza sozialera bideratua. *Hirugarren lekuak*, orduan, bizitza komunitarioaren "aingurak" dira, eta elkarreragin zabal eta sortzaileagoa sustatzen dute. Bestela esanda, "zure *hirugarren lekua* jendartean erlaxatzen zaren lekua da, aurpegi ezagunekin topo egin eta berriak ezagutzen dituzun tokia". *Hirugarren lekua*, beraz, subjektiboa da, norbaiten *hirugarren lekuak* ez du zertan beste batzuen *hirugarren leku* izan behar, eta komunitate batek *hirugarren lekutzat* hartzen duen esparrua, batzuetan, kanpokoek gotorleku edo alferrekotzat har dezakete.

The Great Good Place liburuan, Oldenburgek *hirugarren lekuen* puntu komunak azaltzen ditu:

LUR NEUTRALA. *Hirugarren lekuen* okupatzaileak ez daude bertan egoitera behartuta. Ez dago gonbidatu/anfitrioi moduko erlaziorik eta adiskidetasuna sortzen edo garatzen laguntzen dute.

LEKU IREKIA. Oldenburg-ek "Leveler" izena ematen dio ezaugarri honi, Ingalaterrako gerra zibilean gizarte-klaseak eta sistema hierarkikoak indargabetzea helburu zuten ezker muturreko prestakuntza politikoei erreferentzia eginez. Norberaren egoera sozio-ekonomikoak ez du garrantzirik *hirugarren lekuetan*, eta erabiltzaileen arten komunaren sentsazioa garatzen laguntzen du.

KOMUNIKAZIOA. Oldenburgek ikusten du, lehen bi ezaugarriek esker, pertsona talde batek modu erosoan komunikatzeko aukera izan dezakeela eta, beraz, garrantzia ematen dio *hirugarren lekuan* komunikazio egokia presente egoteari.

ATSEGINA ETA IRISGARRIA. Bizi-estiloan edo bizi-erritmoan egon daitezkeen desberdintasunen aurrean, garrantzitsua da *hirugarren leku* bat irisgarria izatea, baita bertan egoteko eroso ere, erabiltzaileen nahiei

erantzun eta lagunekin topo egiteko aukerak eskainiko dituen.

NUKLEO GOGORRA. Ohikoak diren erabiltzaileak izaten dira, espazioari giroa eta ezaugarri zehatzak ematen laguntzen diotenak; baina ohikoek etorri berriak erakarri eta haiei bertan egokitua sentitzen laguntzen diote, multzoarekin bat egiteko gogoia izatera bultzatuko du.

PROFIL BAXUA. Ez da erakusteko leku nabarmena. Jarrera esnob edo itxurakeria eta handikerietatik urrun dauden espazioak dira. Baldintza guztietako jendea onartzen duten leku atseginak dira.

GIROA. Giroak alaia izan behar du, eztabaidak bata bestea errespetatuz egiten dira, beti adiskidantza-tzoko tonu batean eta ez tentsioz edo etsaitasunez markatuta; beti ere, iritsi berria parte hartzera gonbidatuz.

ETXETIK KANPOKO ETXE. Goxoa behar du eta partaidetza sentsazioa eskaintzen die bertan daudenei, espazioan errotuta izatea sentitzeraino; norberaren garapenean etxea bezain erabilgarri edo erabilgarria-goxo izan daitezke.



LIBURUA

Letraratu



ULF ANDERSEN

ANALFABETOA IDAZLE

AGOTA KRISTOF
ALBERDANIA, 2020

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Gogoz eta beldurrez hartu dut Kristofek idatzi eta Eskarne Mujika Gallastegui primerran itzulitako liburua. Gogoz, idazle ezaguna dudalako eta gustuko; beldurrez, liburu motzen intentsitatea ezin neurtu dudalako nahiz eta susmoa har diezaiokean... eta asmatu. 50 orrialde-tan bidaia sakona eta argia egin baitut irakurri ahala.

Autorearen bizitzan oinarritutako liburua da, lehenengo pertsonan idatzia. Hungariako gerra dela-eta deserrira joan behar izan denaren kontakizuna da, eta protagonistak hizkuntzarekin duen harremana da hari narratiboa, liburu osoa harilkatzen duena: txikia zeneko dena irakurri beharra, umetan istorioak kontatzeko ohitura, nerabezaroan idatzitako poemak, barnetegian egindako antzezlanak, deserrian bere hizkuntzaren galera, beste hizkuntzen inposaketa

eta honek bizitza osoan beragan duen inpaktu emozional eta psikologikoa josten ditu oso fin. Berea ez den hizkuntza batean letraratzen ditu gainera.


Hori erakusten diguten hainbat adibide aurkituko ditugu: "Suitzara iristen naizela, frantsesez hitz egiten den hiri batera iritsi ere halabeharrez, eta zeharo arrotza zaidan hizkuntza bati aurre egin behar diodala. Orduantxe hasten da hori menderatzeko nire borroka, bizi guztian mantenduko dudana borroka luze eta amorratua" (25. orrialdea).

"Nola azaldu, bera mindu gabe, (...) bere herri hau basamortua baino ez dela guretzat, iheslariontzat" (41. orrialdea). Zerbaiten parte izatea bilatzen dugu gizakiok, hori da gure izatearen parte inportante bat. Eta parte sentiarazten gaituzten bi gauza galdu ditu protagonistak: ama hizkuntza eta herria, komunitatea.

Liburuak bere bizitzako denbora tarte zabala hartzen du, izan ere, txikia zenetik eta helduarora bitarteko pasarteak gogoratzen ditu. Liburu osoa orainaldian idatzita dago eta esaldi labur eta zehatzek osatzen dute kontakizuna erritmo bizia eta arina emanez. Kontatzen dituen anekdotak oso aproposak dira, irudiak eta sentsazioak primerran sortzen dizkiolako irakurleari.

Kanpo egiturari begiratu nahi izan diot eta horretarako orri gehien zein kapituluri eskaintzen dion begiratu dut aurkibidean. Hau izan da hartu dudana sorpresa: Kapitulu bakoitzak lau orrialde ditu. Ez gehiago ez gutxiago. Idazketa zehatz eta zuhurraren beste adibide bat.

Agota Kristofen beste hainbat liburu irakur ditzakegu euskaraz: *Atzo*, *Berdin dio* eta *Koaderno handia*. Bere lanez, literaturaz eta hitzez gozatzen jarraitzeko aukera aparta. ●



MUSIKA

Budokan-en baino hobeto



IKER BARANDIARAN

Ez da lehen aldia esaten dudana, baina Bergarako Fly Shit taldeari zor diogu Deba bailaran (goikoan zein behekoan, osoan) luzaroan hardcorearen garrak piztuta eta sasoi onean irautea. Gutxi, baina ona, ederra. Ume moko batzuk zirenean osatu zuten taldea hainbatek miresten genituen taldeetatik edanez eta haiek gogora ekarriz; eta gerora ibilbide mardula egin dute, ikasitakoa biderkatuz eta aberastuz, betiere musika egiteko plazeragatik, pentsatzen dutena konpartitzeagatik eta moda zein azaleko balioetatik at dagoen eszena konkretu bat babestu eta elikatzeko.

Pandemia erdian bizi izan genuen geldidune akabaezinaz nazkatuta, kontzertu berezia egin zuten Bergarako

Kartzela Zaharrean ikusleak kameraren bestaldean zituztela; helburua, haien barruak askatu eta garai zail horietan zaleekin egiten dakitena konpartitzea, egoera hotzean izan behar bazuen ere, ondo, sentikor. Bada, Rsound-ek grabatu, Tabuk (Solostudios) nahasi eta masterizatu, eta orain hilabete batzuk taldearen 25. urteurren kontzertuan –gau gogoangarria– oparitu zuten emaitza CD formatuan.

Hamar kanta borobil, zuzenean, publikoaren berotasunik gabe biluzik, baina era berean indartsu eta hunkigarri, gorputzak eskatzen zuenari jarraituta. Ez dago kanta berririk, baina –nork esango luke– badute bestelako ñabardura: *Bizitza baina nola bizi?* haien iraute-



MUNDU HAU ONTZAT HARTZEN EZ DUTENEN HABIAN, ZUZENEAN

FLY SHIT

AUTOEKOIZPENA, 2022

asmo eta aurkezpen-txartela da. *Kaleak berreskuratuta* orduan eta orain aldarrizkatzeko moduko eskola zaharreko hardcorea, azkarra. *Bidai klandestino*a Bap! handien gaur egungo sasikumea izan liteke. *Heriotz gurutzatuak* istorio sarkorak, post-hardcorearen esentzia eta tempo erdiak batzen dituen kanta erraldoia. *Fly Shit II* salto eta erritmo askoko pieza jostaria, abiadurazkoa. *Badaezpada*koak RKL zenari gorazarre bizi-bizia, instrumentazioan pareko. *Barneko ahotzaren bila* rockeroa, pisutsua eta oso aberatsa, desberdina. *Piramidean* eskola zaharrekoa, iluna. *Sareetan harrapatuta* premonitorioa eta gaurkoa: Eta, azkenik, *Bizitzak zabortegetian* hit melodiko sentikorra. ●



Eternitatea daramagu esna

AMETS ARANGUREN MIKEL URDANGARIN

Bilera batetik bost minutu lehenago alde egin eta korrika noa ea gonbidapenik geratzen den, kaskoetan *Burutik*. San Frantzisko plazan baloikada bat jaso –nola ez–, ikasle batzuk agurtu eta heldu naiz Erraldioen Txokora. Gonbidapenik ez, baina Jokin da atarian, beti bezain eskuzabal. Bere lekua utzi dit.

Piano eder batek hartzen du ia ohol-tza osoa. Ondoan gitarra bat eta aulkirik gabeko jendea lurrean eserita. Behin entzun nuen ohitura bat hiru belaunaldiren eskutik pasatzen delarik bihurtzen dela tradizio. Hiru belaunaldi eta hiru edizio baliokide badira, euriak heldu den urteko Kantu eta hitza zikloan itzuli besterik ez du behar tradizio bilakatzeko. Eskerrak aurtengo bisita minutu batzuetako kontua besterik ez den izan.

Momentu batzuk betiko gordetzeko egiten ditu kantutak Mikel Urdangarinek, nahiz eta batzuetan gertakariak pixka bat moldatu letrak edertzeko –beste askok bezala–, horregatik daramagu aka-

so eternitatea esna. Ez da batere erraza ordu eta erdian bakarkako emanaldi bati eustea, baina presentzia handiz eutsi dio margolariaren semeak, Ameriketatik heldu berrikan *jet lag*-a zirika bazuen ere. Entzun ditugu kanta zaharrak eta ez hain zaharrak eta normalean baino *laralara* gehiago, letra inprimatu batzuk ahaztu izanaren ondorioz. Txoriek lagundu diote tarte instrumentalen batean.

Anarik bezala, Urdangarinek ere badu suteen inguruko albiste batetik tiraka eginiko kantutak. Kixkalita hil zen emakumezko heldu bat Reusen, berogailua pagatzeko dirurik ez eta etxea argizariz betea izaten zuena. *Kopla bihotzekoak* inpaktu horretatik eginiko koplak dira. *Agian dena aldatzen ahal da, agian non-bait biderik bada...*

Bertsolari izandakoa da zornotzarra eta agian horregatik da gai publikoaren arreta mantendu, ohol-tzan bakarrik eroso egon –edo hori transmititu– eta

KANTU ETA HITZA.
MIKEL URDANGARIN

NOIZ: ekainak 2

NON: Erraldioen Txokoa (Iruñea)

espero gabeko egoeren aurrean duinki inprobisatzeko. Jon Lopategi izan zuen maisu bertsotan eta berarendako ere badu kanturik.

Munduko herririk politenekoa bada ere, Gasteizi idatzi dio kanta bat baino gehiago Urdangarinek eta horiek ez ezik, kantutak denak maitasun kantak direla aipatu du, maitasun hori edozein motatakoa delarik ere. Maitasun kantak edo beldurraren kontrakoak, gauza bera finean. Horri eutsiz eskaini du azkena pianoarekin. Lau urte dira jotzen ikasten hasi zela eta gitarrarekin baino traket-sago ikusten du bere burua. Lehen aldiz ikusi dut zornotzarra zuzenean eta espero nuena izan da ikusi dudana, ez gehiago ezta gutxiago ere.

Uda usaina du iluntzeak eta udan bezala aritu dira dantzan ondoan izan ditudan laupabost urteko bi neskatilak, poz-pozik, Lauaxetaren hitzen atmosferapean, Anek idatzi duena entzun artean edota bazkalosteko kafearen giroan. ●



Hitz gezidunak

Gaia: Sanjuanak ospatzen dituzten Gipuzkoako herriak

 1	URTE GUZTIAN URDURI, GRINATI			2 ARRESKE		UZTERA BEHARTU ANPEREA		JABETASUN ATZIZKIA GIZON EZKONDU		 2
	DUT (ALDE- RANTZIZ) BIZKAIKO UDALERRIA					ZEGOEN FRANTZIOA				
ANTZI BATEN ATZEKO ALDEA 1	PAPER MEHE ETA GARDENA BYTE							BORROKARIK EZA SARE ZAINZAILA		HANKAREN GILTZADURA ESTUKI, HERTSIKI
				3 MARGOA						
NITROGENOA EZ HOTZ EZ BERO	LOKARRI, LOTURA GEHITZEKO PARTIKULA					NAFARROAKO IBAIA URTEAREN SEIGARRIN HIL				
				ONTASUNEZ PAPERAK-ETA ITSASTEKO AHI				NORENA ATZIZKIA MUSIKA		
NAFARROAKO HERRIA NAHASTE					ELKARTE BATEKO PARTAIDE UGARI					ERREPIKA- TUZ, TXORI MOTA POTENTZIA
				PIRATEN EDARIA GARAIPENA			ISURKARI MINGOTS TORTURAREN AURKAKO TALDEA			
 3										 4
		4 LOALDI								
						ZALETASUN ATZIZKIA				

Sudokua


BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

		7	4					
8	6	1		3		5		7
9		5	7	8		2	3	6
1			9					
7	3				4		6	8
		6					5	
	1				2			9
				7	3	8		
6	7		8	9	5	4	1	

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

- Oinazetu.
- Zezen zikiratuak.
- Azido nitrikoaren edozein gatz.
- Urak dakarrena, urak...
- Ukamenak.



EBAZPENAK

- MINDU
- IDIAK
- NITRO
- DAROA
- UKOKAK

2	1	7	5	6	8	3	7	9
5	8	3	7	9	2	6	4	
6	9	2	6	3	4	8	5	1
2	8	5	4	6	3	1	7	9
7	3	9	5	2	4	1	6	8
1	5	4	8	6	6	6	6	7
3	3	2	2	8	1	2	3	3
9	6	4	5	7	8	1	2	3
8	6	1	2	3	6	5	4	7
3	2	7	4	5	6	8	9	1

			N	U	L		O	V	I	B		
			I	N	V	N	E	R	H			
			A	I	L	I	V	A		G		
N	I	d	Z	O		V	N	O		R	E	O
U	K		E	I	D	K	I	U	L	V	A	E
V	A		E	R	E	Z	E	N	O		T	E
L	I		V	A	V		I	K	O	T		N
E	T		S	V	R	V	R	V	R	V	A	E
B			B	N	V	A	F	O	E	L	Z	B
			N	E	Z		E	D				
			U	S	L	V	N	I		R	G	
			D		U	V						

Zelai Amenabarro

LEGORRETAKO ALKATEA



LEHENENGO URRATSA

"Kanpaina zehatzak egin izan ditugu aurretik, baina beti ekainaren 28ko Harrotasunaren Egunaren bueltan eta oso azalekoak, eta ikusi genuen hori ez dela gaiari benetan heltzea, bestelako politika batzuk landu behar genituela. Udalbatzan erabaki genuen lehenengo pausoa zela kolektiboaren diagnostiko bat egitea, herriko errealitatea ezagutzea arlo honetan, ondoren horren arabera neurri zehatzak hartzen hasteko". Zuriñe Rodríguez Sudergintza elkarteko eta Ibai Fresnedo Hiruki Larroxako ikerlariak arduratu dira diagnostikoa egiteaz.

"Sexiliatu ordeztu, gazte LGTBek Legorretan ikusten dute beren bizi proiektua"

Lehenengo aldia da herri txiki batetan bertako biztanle LGTBak anonimoki elkarrizketatu eta komunitatearen diagnostikoa egiten dena. 1.500 bizilagun dituen Legorreta izan da herri aitzindaria, eta Zelai Amenabarro Goikoetxea alkateari galdetu diogu urtebeteko prozesuak utzi dituen ondorioez. "Goizetik gauera ez da sortuko Legorretan *ambiente*ko taberna bat, baina bai herritar LGTBak kontuan hartuko dituzten ekimenak".

MIKEL GARCIA IDIAKEZ DANI BLANCO

Hiri handietan egin izan dira mota honetako diagnostikoak, baina Legorreta da halako zer bait egiten duen lehenengo herria. Herri txikietan inbisibilizatuago dago kolektiboa?

Herri txikietan ikusgarritasuna zaila da eta hori elkarrizketatuek eurek esan dute, horrexegatik ere inportantea da halako diagnostikoak egitea. Legorretakoa beste udal batzuentzat lagungarri izan badaiteke, zoragarri, tokian toki egiten diren politiken berri izatea eta elkarrengandik ikastea beti baita interesgarria.

Jende askok hartu al du parte? Eta horietatik askok anonimoki egin al du? Alegia, herrian kostatzen al zaio jendeari armairutik ateratzea?

Denetik egon da parte-hartzaileen artean, bai armairuan dagoen jendea, bai armairutik atera dena, bai egoera eta eremu jakin batzuetan bere identitate sexuala esplizitatu duena eta beste egoera batzuetan ez... baina denek egin dituzte elkarrizketak modu anonimoan, espazio eta prozesu segurua izatea bermatu nahi izan dugulako. Kopurua, asko

edo gutxi, subjektiboa da. Nik soslaia azpimarratuko nuke: oro har nahiko gazteak dira; badirudi adinekoei zailagoa zaiela halako prozesu batean parte hartzea.

Diagnostikotik ateratako zein ondorio azpimarratuko zenituzke?

Adibidez, deigarri gertatu zait gehienek ez dutela arrisku gisa identifikatzen espazio publikoa, baina aldi berean uste dute publikoki LGTB pertsona moduan agertzeak ondorioak izan ditzakeela; hor badago kontraesan bat. Nabarmentzen dute batik bat zeharka sentitu dituztela irainak eta seinalamenduak, aurrez aurre baino gehiago atzetik, txutxu-mutxuan... Herri txiki izateak eta denek elkar ezagutzeak badakartza txutxu-mutxuak eta komentarioak zabaltzea.

"Herri txiki, infernu handi" dio esamoldeak. Itogarria izan al daiteke giroa, komunitate txikietan?

Zenbait egoeratan itolarri sentimendu hori bizi dutela adierazi dute elkarrizketatuek, baina nahiz eta herri txikiekin lotu ohi dugun, LGTB ko-



"Gehienek ez dute arrisku gisa identifikatu espazio publikoa, baina aldi berean uste dute publikoki LGTB pertsona moduan agertzeak ondorioak izan ditzakeela".

lektiboa oraindik kolektibo askea ez den heinean hiri handietan ere gertatuko dela imajinatzen dut. Erasoak toki guztietan ematen dira, esaterako.

Eta hala ere herri txikietatik hirietara sexilioa egiten du hainbatek, askatasun eta anonimotasun handiagoaren bila...

Aurreko urteetan izan dugu sexiliorik, LGTB jendeak hiri handiagoetara egin izan du alde gurean, baina diagnostiko honetan aldaketa ikusi dugu, belaunaldi gazteak Legorretan ikusten du bere bizi proiektua, LGTB komunitatea ikusarazteko borroka herrian bertan eginez.

Herri txikietako gertutasunak bi alde ditu: elkar zaintzeko sare trinkoagoak erraztu ditzake, baina helduleku gutxiago ere eskaini ditzake, edo behintzat hirian aurkitu dezakezun aniztasunaren falta sumatu daiteke, *anbienteko* tabernak kasu.

Hala da, txanponaren bi aldeak ditu herriak. Goizetik gauera ez da sortuko Legorretan *anbienteko* taberna bat, baina bai gutxinaka herriko kultur ekintzetan, aisialdian... LGTB herritarrak kontuan hartuko dituzten ekimenak. Beraiek zein oro har herritar guztiak aintzat dituzten eta seguru sentituko diren espazioak sortzen joatea da bidea. Beraiek ere pix-

kanaka espazioak hartzen joango dira.

Zer egingo duzue diagnostikoaren emaitzekin?

Diagnostikoaren aurkezpena bera, herriko plazan, sinbolismo handiko ekin-tza da. Ikusgarritasuna eman nahi izan diogu diagnostikoari, eta aurkezpena egiteko plaza hartu nahi izan dugu herritar asko kalean den momentu batean [joan den ostiral iluntzean], ikusgarritasuna bera badelako pauso inportantea. Ondoren, pixkanaka zein neurri hartu ikusteko plangintza osatzen joango gara, Legorreta guztientzat herri bizigarria izatea helburu. ●



Explorer nostalgia

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Maite duzun norbait –edo zerbait– betirako desagertzen denean triste jartzea normaltzat hartzen da, noski. Askoz zailagoa da esplikatzeko gorrotatzen duzun norbait –edo zerbait– joango dela jakitean zure bihozñoaren erdian sentitzen duzun atximur hori. Tristuraren ekoizleek mundu moderno honetan daukaten katalogo zabalaren barruan, segur aski hau izango da eskaintzen duten produkturik arraroena. Ez da guztiz ezohikoa hala ere.

Zeri buruz ari naizen badakite, adibidez, bizi osoa aita gorrotatzen eta harekin xextran pasa ondoren, zaharrek azkeneko eztula egiten duenean, jantzen diotenean traje polit bat eternitate osoan aldatuko ez duena, sartzen dutenean pinuzko kutxan, hasten direnean gainera lur palakada batzuk botatzen, justu orduan, negar zotinka hasten diren umezurtz berriek. Bida-soa erdia malko-zuloetatik jariatzen ari dira eta inork ez du ulertzen zergatik. Bat-batean jabetu dira *pater familias*-a zenbat maite zuten? Keba. Kontua da bizi osoan gorrotatu dezakezun *zera hori* gabe geratzeak ere hutsunea uzten duela. Eta ea zerekin betetzen duzun, zeren gaur egungo bizimoduak gorrotatzeko aukera berri pila eskaintzen du, baina surimia jatea bezala dira, aurretik txatkara ohituta zegoenarentzat. Nekez aurkituko duzu hain ongi gorrotatu dezakezun norbait.

Uste dut tristura hori sentitu dudala jakin dudanean Internet Explorer betirako desagertuko dela. (2000. urtearen ondoren jaio baldin bazinen, segi paragrafo honetan; lehenago jaiotakoek ondorengo informazioa soberan dute). Internet Explorer programa izan zen 90eko eta 2000ko hamarkadetan sarri konektatzeko tresna nagusia etxe



askotan. Arrazoi sinple batengatik: Windowsak instalatuta ekartzen zuen. Askok ez genekien Internet beste ezer izan zitekeenik ere. Horren erruz, web batetik bestera ibiltzea prozesu mantso, astun eta nekagarria zen, ez zegoen egunik ataskatzen ez zenik, orrialde bakoitza kargatzea gehiago kostatzen zitzaion niri astelehenetan ohetik jaikitzea baino. Eta hori gutxi balitz, birusei dagokienez, Explorerrekin nabigatzea zen harizko tanga soil batekin Wuhan-go saguzarrez betetako piztina batean murgiltzea bezala. Gorroto nuen Internet Explorer arrazoi sakonagoengatik ere: Microsoften monopolioaren sinboloa, garaitu beharreko piztia.

Baina aspaldiko kontu horiek alde batera utzita, Internet Explorerrez gogoratzea –gogoratu egin behar baituzu existitzen dela– nostalgiko jartzeko aukera ere bada. Eta hemen ez gaude horrelakoak pasatzen uzteko. Adibi-

dez, oroitzeko egon zela garai bat zeinenean Interneti buruz hitz egiten zen. Hau da, mundu erreal bat zegoen eta aparte zegoen sarea izeneko eremu bat, eta kapaz ginen biak desberdintzeko. Konexio eskasak, soinu arraroak egiten zituzten modemak, artisautza-espirtuarekin egindako webak. Inbento horri dirua nola atera oraindik oso ondo ez zekiten korporazioak. Explorer kaka zahar bat zen, ados, baina Explorerren garaia ez hainbeste.

Pentsatzen jarrita, badago komunitate bat oraindik antzinako errito eta sinismenei oso lotuta dagoena eta segur aski Internet Explorer erabiltzen jarraituko duena azken egunera arte: administrazio publikoa. Espero dut notiziak irakurriko zituztela eta prest egongo direla zibilizazio burokratikoaren inarrosiko duen aldaketarako. Zeren bestela, sortuko den egoerak tristura ez dakit, baina gorrotoa tonaka ekoiztuko du. ●



17€

**Artikulu hauek erosita
ekarpen ekonomikoa
egingo diozu Bilboko Mbolo
Moye Doole elkarteari.
Atera aldarria kalera
euskaraz eta wolofez!**

Bidalketa gastuak **4€** eta **40€**-tik gorako erosketetan, bidalketa doan.
Hemendik aurrera erosketak **BIZUM** bidez ere ordaindu daitezke.



**%100
kotoi
organikoa**

19,5€

**+ 5€
bidalketa
gastuak**

azoka.argia.eus

(+34) 943 37 15 45



2 URTE ARGIA BIZIKLETAZ BANATZEN

GASTEIZ
DONOSTIA
IRUÑEA
HENDAIA
IRUN
HONDARRIBIA



ZER EGIN DEZAKET?

Zure herrian halako banaketa sistema bat
sustatzeko aukerarik ikusten baduzu,
jarri gurekin harremanetan:

komunitatea@argia.eus (+34) 943 37 15 45